

...eta Kitto!

2018-III-9

1049 zkia.

25 urteko PAGATXA eguzki-izpia



Gure betaurreko guztiak
2018 bildumakoak dira

www.multiopicasgipuzkoa.com



**2mó
betaurreko
graduatu**

erreflexuen aurkako leiarrekin

99€

GRADUAZIO GUZTIETARAKO

Arrasate • Bergara • Beasain • Donostia • Errenteria
Irun • Lasarte-Oria • Ordizia • Tolosa
Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

Stock AMAIERA Likidazioa

7 URTEKO GARANTIA



KONDIA

URTE 1
ARRISKU OROTAKO
ASEGURUA
DOAN
ADIN-MUGARIK
GABE

5 Unit.



**KUGA
TREND +
19.990€**

KUGA Trend+ 1.5
ECOBOOST 120CV

3 Unit.



**TOURNEO CONNECT
TITANIUM
18.900€**

TOURNEO CONNECT
TITANIUM 1.5 TDCI (120CV)

3 Unit.



**C-MAX
TREND +
17.900€**

CMAX TREND+ 1.0
ECOBOOST 125CV

4 Unit.



**FOCUS
TREND +
15.900€**

FOCUS 1.0 TREND+
ECOBOOST 125CV

5 Unit.



**ALL NEW
FIESTA
TREND +
11.900€**

FIESTA 5 ATE
TREND+ 1.1(85CV)

5 Unit.



**Nuevo KA
ESSENTIAL
8.900€**

KA+
1.19 TI-VCT 70CV

ZURE KONTZESIONARIO
OFIZIALA

www.concesionariofordkondia.com

FORD KONDIA
Otaola Etorb., 22
EIBAR T. 943 202 091

ZIORLA AUTOAK
Santamaña Auzoa, 19
IURRETA T. 946 815 569

Eskaintza baliagarria 03/31ra arte edo stock-a agortu arte. Eskaintzak BEZ, promozio-deskontua eta FCE Bank, plc SE bidez finantziatzeagatik deskontua hartzen ditu bane. Arrisku orotako aseguru doan promozioa: autoentzako promozio baliagarria lehen urterako adin-mugarik gabe. Ez dira promozioan sartzen Ford Mustang, Ford Edge eta Tourneo Connect modeloak. Ikusten diren modelok ez dute zertan bat etorri behar eskaintako modeloein.

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Maialen Belaustegi
eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:
Maialen Belaustegi

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.150 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto! "k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

eskutitzak

– Delteco Eibar Triatloi Taldearen esker onak –

Aurreko zapatuan, martxoaren 3an, Gipuzkoako Duetloi Sprint txapelketa antolatu zuen Delteco Eibar Triatloi Taldeak Eibarko kaleetan, Eibarko XXVII. Duetloiarren barruan. Bai Gipuzkoa mailan eta baita Eibarko triatloiarren urteko zereginen artean ere hain lehiaketa garrantzitsua izanda, horrelako txapelketa bat antolatzea ezinezkoa izango zen urtero

ditugun laguntzailerik gabe. Lerro hauen bitartez bihotz-bihotzez eskertzen diegu euren laguntza zapatuan eskaini ziguten guztiei, batez ere boluntarioei, babesle guztiei eta Eibarko Udalari eta, azken honi dagokionez, Udaltzaingoari eta Udal Brigadari bereziki.

Delteco Eibar Triatloi Taldea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MAKILLARI. - Makila ondo erabiltzen dakiena. Erromerietan musikoei indartsuenari makila bat ematen zioten ordena ipintzeko. "Erromerixetan makillari agertzen zan".

MAKILLA-SALDA. - Jipoia, egurra. "Partidua amaitzen danian, han beti egoten dok makilla-saldia".

MAKILLATU. - Jo, jipoitu. "Kutxillua atara jok eta ondo makillauta laga dabe".

astean esanak

"Industriak aukerarik finkoenak eta ondoen ordainduak eskaintzen dituenean, industrian irtenbide profesionalik onenak dituzten lanbide-ikasketen hamar ikasleetatik bederatzik mutirik dira. Gero eta neska gehiago dago Lanbide Heziketa egiten, baina neskarik gehienek jarraitzen dute zerbitzuez, kulturaz, osasunaz, irudiaz, administrazioaz eta kudeaketaz interesatzen. Eta ez ekoizpenaz, mantenuaz edo informatikaz. Emakumeek ordezkatzuten duten gizartearen talentu erdiak muxin egiten die merkatuaren eskaintza onenei"

(AMATIÑO, KAZETARIA)

"Guztiak jakin beharko lukete 2014ko urtarrilaren 1etik pentsioek lege gutxienez %0'25 eta gehienez inflazioa gehi %0'50 igoko direla. Kontsumoko Prezio Indizeak igoera hori laukotu egiten badu ere, Europako Banku Zentralak inflazioaren %2 ematearen promesa betetzen duenean, gaur egun 65 urterekin jubilatzen denak, beste 21 urte hartzen baditu, azken kopuru horretan %40tik gora galduko du. Gure aburuz, pentsioa kobratzeko lehen hilabetearen erosteko ahalmenen galera, batz beste, 350 eurokoa izango bada, bizi-itxaropenaren arabera jubilatua 21. urtean hiltzen denerako, galera hori 700 eurotik gorakoa izango da"

(JOSE ANTONIO HERCE, ANALISTA FINANTZIEROA)

"Orain dela 45 urte, goi mailako enpresari agintariak oinarritzko langile batek baino 40 bat aldiz gehiago irabazten zuten; gaur egun, mila aldiz gehiago. Horraino iritsi da arrakala eta hori ezin da onartu. Gaur egungo sistema irauli behar da. Langileek nahikoa dute ordaintzen dutena ordainduta, baina eliteko pertsonak kudeatzen dute diru hori guztia, eta interes horiei men egiten die Espainiako Gobernuak. Sistemak badu gaitasuna gizarte osoarentzat bizimodu duina bermatzeko, eta aberatsak aberats izan daitezke aurrerantzean ere, baina ez halako arrakala ikaragarriarekin"

(BALEREN BAKAIKOA, EKONOMIALARIA)



ENRIKE ZUAZUA

Forma mugimenduan

Hasierako Big Bang-etik, unibertsoan den-dena "forma-mugimendua" binomioaren inguruan egituratzen da. Matematika eta, batez ere Geometria eta Mekanika, binomio hori ulertzeko sortu ziren. Baina Errenazimenduan komunitate zientifikoak ulertu zuen objektu eta mugimendu bakoitzak ezin izango zuela formula zehatz bat izan. Topologia sortzeko beharra nabaritu zen orduan, "txiklearen geometria" delakoa. Arlo horretan bi forma baliokideak dira bata bestearengan deformatu ahal bada, modu jarraian, hautsi gabe, zulorik sortu edo estali gabe. Horrela, esate baterako, kafekopa eta donutsa baliokideak dira, bakoitzak zulo bakar bat duelako. Leonard Euler suitzarrari (1707-1783) leporatzen zaio Topologiaren sorrera, Königsberg Hiriko Zazpi Zubien problema aztertu zuenean. Handik mende eta erdira, zientziaren beste erraldoi batek, **Henri Poincaré** frantziarrak (1854-1912), Topologiaren eremua eta Zeruko Mekanika berri zitu. Poincaré-k 1904an honako galdetu zion bere buruari: bizi garen lau dimentsiotako espazioan (luzera, zabalera, altuera eta denbora) esferaren baliokidea den gainazal batean berau biltzen duen elastiko bat leunki bihur daiteke puntu batean? Komunitate matematikoa laster jabetu zen arazoaren garrantzi eta zailtasunaz eta "Poincaré-ren aburua" izendatu zuen. Ehun urte geroago, 2006an, **Gregori Perelman** errusiarrak behin-betiko froga bat aurkitu arte. Perelman-en Poincaré-ren Konjekturaren froga eta 1993ko Andrew Wiles-en Fermat-en Teoremaren ospetsuaren ebazpena Matematikaren historian izan diren urrats nagusienetarakoak bihurtu dira, eta azken hamarkadetan biak ezagutzeko aukera bakarra izan dugu. Perelmanek Fields domina irabazi zuen 2006an eta, ondoren, Clay Fundazioaren milioi bat dolarreko saria. Baina biei uko egin zien. Perelmanek emaitza frogatzea zen nahi zuen sari bakarra; beste guztia soberan zegoen. Eta, horrela jokatuta, beste guztioi bidea erakutsi zigon.

22 tabernak dihardue parte hartzen Gilda Lehiaketan

Danera 22 tabernak emon dabe izena gaur amaittuko dan Gilda Lehiaketan parte hartzeko: Akara, Alberto, Amesti, Ametsa, Arkupe, Astelena, Bacoleku (Urkizu), Baisi, Birjiñape, Cepa, Chic, Depor, Dos de Mayo, Guridi, Kontent, Koskor, Kultu, Lau Bide, Maixa, Ongi Etorri, Slow eta Su Beroa. ...eta kitto! Euskara Elkarteak "Euskeraz Primeran!" egitasmuaren barruan antolatutako laugarren ediziñua da aurtengua eta oinguan be epai-mahaikiadiak sukaldaritzan adituak diran Mireia Alonso, Ruben Etxaniz eta Josu Mugerza izango dira. Eurak aukeratzen daben irabazliari 150 euroko sarixa emongo detse eta, horrekin batera, publikuaren sarixa be banatuko dabe antolatzailliak. Horretarako taberna bakotxian botua emoteko kutxa ipiñi dabe eta, botua emon ez eze, bezeruak be sarixa irabazteko aukeria eukiko dabe, parte hartzen daben guztien artian Kantabria jatetxian bi lagunendako afarixa zozketatuko dabe-eta.



asteko
236
datua

banku ipiñiko dittu Udalak herriko hainbat tokitan eta horretarako inbersiñua 50.000 eurotakuia izango da. Dagoeneko 82 banku barri ipiñitta dagoz: 30 Amañako pasialekuan, 39 Tiburtzio Anituan, 1 Txontan eta 12 Barrenan.

Erraustegiaren kontrako informaziñua banatuko da

Gipuzkoako Foru Aldundixa eraikitzen ari dan erraustegixa dala-eta, datorren eguazte-nian proiektu horren kontrako argumentuak jendiaren artian zabaltzeko asmuarekin, ELA eta LAB sindikatuetakoa militantiak esku-orrixak banatuko dittue Txaltxa Ze-laixan, merkadilluan. Horrekin batera, eskualdeko taillar batzuetan Enpresa Batzordiak erraustegiaren aurkako manifestu bateri atxikimen-

dua emoteko ekimena abiatuko dabe. Aittatu dittugun sindikatuetakoa ordezkarixak erraustegixaren kontra egoteko arrazoi ekonomikuak, osasun alorrekuak eta ingurumenari lotutakuak daguazela erizten detse eta, bestiak beste, martxuaren 20xan Ibaetako Agustin Barriola eraikiñian egingo diran erraustegiaren kontrako jardunaldixetan parte hartzen egongo dirala iragarri dabe.



Pensiño duiñen aldeko konzentraziño jendetsua

Asteleheneroko martxan, aste honetan be alkarrataratzia egin eben jubilauek Untzagan, udal-letxe parian, pensiñuak igotzia eskatzeko. "Ez dugu nahi limosnarik geurea dana baizik" esaldixa idatzitta zekan pankartarekin, Rajoyren gobernuak pensiñuetarako ezarri daben %0'25eko igoria dala eta, euren hasarria agertu eben udal-letxe parian konzentraziñua eginda.





autuan

GAUTENAREN ALDEKO EKITALDIXA

Ametsa tabernak Gautena alkartiaren aldeko pintxo-solidarixua antolatu dau bixarko. Ekitaldixa, gaiñera, zuzeneko musikarekin lagunduko dabe: 11:30xetatik aurrera Kimu Txalaparta (Donosti) taldiak jardungo dau eta 19:30xetatik aurrera Canal 69 (Bartzelona) taldekuak. Horrekin batera, tabernan iaz urte osuan martxan euki daben Elkartasun Kafea kanpaiñari esker batu daben dirua emongo detse Gautena alkarteko ordezkariari.

ERRIGORAREN KANPAIÑA

Martitzenian hasi ziran Errigoraren kanpaiña barrirako eskaeriak jasotzen. Betiko lez, oliba-olixo birjiña eta konserbak erosteko eskintza berezixak dagoz. Informaziño guztia ikusteko edo eskaeriak egitteko errigora.eus helbidian sartu zeinkie. Eskaeriak egitteko azken eguna hillaren 20xa izango da eta Eibarren ohiko tokixetan eskatzeko aukeria be badago.

Andrak eta lan mundua ardatz izango dittuan mahai-ingurua gaur arratsaldian

Andrak lan merkatuan dittuen eskubidien gaiñian jardungo dabe berbetan gaur arratsaldian, 18:30xetan, Eibarko sozialisten Untzagako egoitzan ("Casa del Pueblon"). "Emakumien eskubidiak lan merkatuan" izenburuko mahai-ingurua Eibarko Sozialistak antolatu dabe, Egotik Ekora taldiarekin alkarlanian eta honek hartuko dabe parte: Alfan biharrrian jardun eban Carmen Retenaga eta Ana Alberdi, Monroen jardun eban Itziar Badiola, Raúl Arza UGT sindikatuko ordezkari eta Loli García CC.OO. sindikatuko ordezkari. Moderatzaillia, barriz, giza baliabidietan aditua dan Ariana Nogales izango da. Ekitaldixa jua nahi daben herritar guztiendako zabalik egingo dabe.



EGITARUA

Topagunea (09:30)

Eibarko Klub Deportiboan
(T. Etxebarria, 16)

Ibilbidea (09:30/10:30)

Denok elkarrekin egingo dugu
1,5 km-ko igoera oinez, Iturburu
ikastolaren ondoko Eztiagaraino

OINEZ JOATEN EZ DIRENAK
ZUZENEAN JOAN DAITEZKE
EZTIAGARAINO 10:30EAN

Tailerra eta Landaketa

(10:30/12:00)

Lau motatako 40 zuhaitz
landatuko ditugu guztion artean

Hamaiketako (12:00/13:00)

Lana egin ondoren
indarrak berreskuratzeko

Ibilbidea (13:00/14:00)

Jaitsiera Eibarrera

Basoak: gure babesle

- Airea garbitzen dute
- Aldaketa klimatikoari aurre egiten diote
- Biodibertsitate iturri dira
- Fruituak ematen dizkigute
- Euri ura xurgatzen dute
- Airea iragazten dute
- Zarata gutxitzen dute
- Itzala ematen dute
- Egurra eta energia ematen digute
- Gure bizi kalitatea hobetzen dute

Zer landatuko dugu domekan?

- Lizarra
- Haritza
- Gorostia
- Urkia

Zuhaitz Eguna

igandean
Martxoaren
18an





Metrologiako kalidade-kontrolaren inguruko espezializaziño programa barrizailia

Martitzenian hasi ziran Metrologian graduondokua emoten Armerixa Eskolan eta, eskintza barrixari buruzko azalpenak emoteko, aurkezpena egin eben astelehenian ikastetxian, Armerixa Eskolako Ikasle Ohien lokalian. Ekitaldixan enpresak, ikasliak, erakundiak eta Hezkuntza Sailleko ordezkariak hartu eben parte.

Azaldutakuaren arabera, espezializaziñua garatzeko, Armerixa Eskolakua sektore horretako bi erreferenterekin alkatu da: Metrologia SARIKI eta automozioako ACICAE klusterrarekin, AIC Academy zentruaren bidez. Ekimena abiatzeko arrazoi nagusiña, metrologo kualifikatuak aurkitzeko enprestan dituen traberu moduren batian erantzuna emotia izan dala emon eben aditzera. Asmo horrekin, eta Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren eta enpresen laguntasunarekin, heziketa programa hau abiatu dabe, txandaketako Dual for-



Astelehenian eskintza barrixa aurkezteko ekitaldixa egin zan Armerixa Eskolan.

matuan. Arduradunen berbetan "ekimenari esker lehen ediziño honetan Armerixa Eskolako eta IES Barrutialdeko 13 ikaslek metrologian espezializatzeko aukeria izango dabe. Ikasle horrek Fabrikaziño Mekanikoko Goi Ziklua amaitzen ari dira eta, espezializaziñuan zihar, ezagutza barrixa praktikan jartzeko aukeria izango dabe, dual eran, beka bidez, Bizkaia eta Gipuzkoako 11 enpresatan. Ikasliak 2.000 ordu egingo dittue guztira, eskolako formaziñua eta lantokiko praktikak uztartuta eta, amaieran, Eusko Jaurlaritzaren Heziketa Departamentuak igorritako titulu ofizial bikoitza jasoko dabe ikasliak".

Lehen ediziño honetan, ekimenarekin bat egin eta ikasliak euren instalaziñuetan formatzeko zein programaren kostuetan laguntzeko konpromisua hartu daben enpresak honek dira: Igorreko Batz soziedade kooperatibua, Atxondoko Fuchosa S.L., Eibarko Mim Tech Alfa S.L., Itziarko Ayra Cardan Spicer, Wind Energy Components (WEC taldea) eta Jegan S.A.L., Mendaroko Egile Corporation XXI, Ermuko Talleres Mecánicos Imag S.A., Engranajes Grindel S.A.L., Elgoibarko Metrología Sariki S.A. eta Zestoako Punteados de Precisiño Goialde.

Andrak eta ekintzailletzaren inguruko mahai-ingurua antolatu du Ekingunek eguenerako

Ekingune alkartekuak andrak eta ekintzailletzaren inguruko mahai-ingurua antolatu dabe datorren eguenerako. Ekitaldixa Eibar Coworking-en izango da (Eibarko Txikito, 8), 18:00etatik aurrera, eta izen-emotia e-postaz (ekingune@ekingune.com helbidera idatzizta, gaixa "LET'S WOMEN GO!" dala adierazita) edo 943 208 420 telefonora deittuta egin leike.

Saioko moderatzaillia Lorea Arakistain, "Puntu Eus" fundaziñuaren komunikaziño arduraduna izango da eta ekitaldixan bost

andrak "euren erantzukizuneko karguetan izandako bizipenak kontauko dittue, gaxaren inguruko euren ikuspegi pertsonala emonda". Mahai-ingurura gonbidatu dittuen andrak Susana Zaballa (Interalde Consultoriaren Bazkide Sortzailea eta Emakumeekin Elkartaren Presidente), Patricia Rodríguez (SD Eibarren Zuzendarri Nagusia), Patricia Arrizabalaga (Eibarko Udalaren Berdintasuneko Zinegotzia), Zaida Fernández (Eibarko Udalaren Berdintasuneko Teknikaria) eta Ibone Arreche



(G.A.C. Arkitekturaren Bazkide Sortzailea) dira. Amaieran, barriz, Miren Narbaiza (MICE) eibartarrak musika-emanaldixa eskinduko dau eta, ondoren, "networking" labur bat egitteko eta alkar ezagutzeko aukeria be izango dabe parte hartzera animatzen diranak.

Emakumien Egunarekin bat egin dau udalak aurten be

Emakumien Nazioarteko Egunaren harira Udalak adierazpen instituzionala onartu dau eta, testuan jaso dabenez, "emakumien lanaren zatirik haundixena ez da ikusten ezta kontabilizatzen be. Lan-merkatuaren barruan eta kanpuan biharrari eskindutako orduak kontuan izanez gero, andrak gure gizarteko lanaren % 56 egitten dabe, baiña ordainsaririk gabeko biharraren %74 be euren esku dago. Gaiñera, feminizatutako lan asko, batez be emakumiak egitten dittuen bihar asko, prekarizatuak edo ezkutuko-ekonomi-xari lotutakua izaten dira".

Egoeriarekin konturata Eibarko Udalak hainbat erabagi hartu dittu: sensibilizazio eta trebakuntza-programak garatuko dittuela, zaintzan eta etxeko lanetan gizonen erantzunkidetasuna sustatzeko eta erabagitzeko guniak andrekin partekatze-ko; bere eskumenekua diran arluetan zaintza babesteko baliabidiak eta zerbitzu publikuak garatu eta finkatzeko lagundu-



ko dabela; Udaleko politikak genero-ikuspegiarekin garatuko dittuela; eta balorien transmisioa azpimarratuko dabela, "berdintasunezko gizaria lortzeko kultura-aldaketak sustatzeko".

Martxuaren 8xaren inguruan programa-

ziño zabala antolatu dabe aurten be Udaleko Berdintasun Arlokuak, Andretxeak, ...eta kitto! Euskara Elkarteak eta Arrate Kultur Elkarteak eta, horrez gain, Eibarko alkarte feministak atzorako deittu zittuen mobilizazioekin bat egin eban Udalak.

Alfakuak 100 egun greban egin zittuen eguaztenian

Eguaztenian bete ziran 100 egun Alfa taldeko bihargiñak greba hasi ebela eta, hori dala eta, bihargiñak egoeriaren barri emoteko agerraldixa egin

eben Untzagan. Esandakuaren arabera, "enpresiak greba eskubidia hasieratik urratu dabela eta", bihargiñak eskatuta epaiek euki eben aurreko

barixakuan eta, bihargiñen berbetan, "enpresiak espero genduan jarrera agertu eban, euren jokabidia guzurrekin, manipulazioz eta 2017ko azaruarren 26xan grebari ekin jakonetik sortu ziran frogekin zurutu eben". Horrekin batera, aparteko garrantzixa emon zetsen APCrako enplegua erregulatzeko likidazio espeditiaren inguruan zuzendaritzaren planteamendua gogoraziari: "Enpresak dittuan 51 bihargiñetik 48 grebalarixak dira. Hórrek lehen fasean kaleratuko dittue eta ez dabe izango iñolako aukerarik beste lanposturen bati jarduteko. Beste hiru

bihargiñeri taldiaren beste enpresetan biharrin jardungo dabela agindu detse. Greba sustatu daben ordezkari guztiak, danak LAB eta ELA sindikatuetakua, lehen fase horretan sartu dittue. Grebaren kontra daguaz Alfa En Comúneko ordezkari guztiak, barriz, bigarren fasean dagoz. Datu objektibo horrek irakorritta, norberak etera deixala bere konklusioa".

Gauzak holan, lanpostuen aldeko grebarekin zein mobilizazioekin segiduko dabe eta biharko konzentrazioa deittu dabe, 12:00xetan Ipuru foball zelaixaren parian.



JOSU MIRENA KORTABERRIA ALBIZU

2018ko martxoaren 4an hil zen,
86 urterekin

FAMILIAREN IZENEAN, **eskerrik beroena** gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.





Pagatxako emakumeek 25 urteko bidea ospatu zuten zapatuan

Emakumeek osatutako hainbat elkarte eta talde dauzkagu herrian, baina sortzen lehenengoetakoa Pagatxa izan zen, 1993. urtean. Aurten, beraz, Eibarko hainbat emakume elkarte sortu zutela 25 urte beteko dira eta, horren aitzakiarekin, aurreko asteburuan ospakizun berezia egin zuten bazkideetako batzuk. Izan ere, elkarteak gaur egun 460 bazkide inguru dauz-

ka eta, beraz, nekez lor daiteke horrelako talde handia batzea. Hala ere, zapatuan Untzaga Plaza hotelean egindako bazkarian 170 andra egon ziren eta, toki gehiago egonez gero, seguruenik beste batzuk ere animatuko ziren parte hartzera. Untzagako talde argazkia ikusi besterik ez dago: bazkideetako askok ez zuten galdu nahi izan 25. urteurrena gogoratzeko argazkian egoteko

aukera eta, bazkarirako baino talde handiagoa osatu zuten Untzagan, harmailetan erretrotua egin eta jarraian aperitiboa hartzeko.

Gizarte eta kultur alorreko jarduerak antolatzeko asmoak bultzatuta eratu zuten Pagatxa emakume taldea eta, mende laurdeneko ibilbidea bete eta gero, oraindik ere hasierako asmo horri eusten diote. Andretxean dauden beste elkarrekin batera Eibarko Emakumearen Mahaian hartzen dute parte, besteak beste, baina hortik kanpora ere Pagatxa beste jarduera batzuk antolatzen ditu. Urtean zehar, adibidez, era askotako ikastaroak egiten dituzte: ingelesa, eskulanak, euskal dantzak, irakurketa eta idazketa tailerrak, dantza, yoga, arnasketa...

Horrez gain, toki ezberdinak ezagutzera joateko irteera eta bisita kulturalak ere antolatzen dituzte: ikusi nahi duten tokia- ren arabera, batzuetan egun-pasa joaten dira eta beste batzuetan, berriz, asteburu osoa ematen dute etxetik kanpora. Eta, horiekin batera, azken ikasturteotan hileroko eskain-

tza kulturean finkatuta geratu diren hainbat jarduera antolatzen ditu Pagatxa: astelehenera Portalean egiten duten saioan, Leticia Martinez-Alcocerren laguntzarekin historian garrantzia izan duen emakumeren baten figura aztertze- ko tartea hartzen dute. Eta bari- xakuetan, Izaskun Rodriguez Elkorok gidatuta, zine-foruma izaten da Portalean. Batera zein bestera joateko aukera herritar guztiei zabalik dago eta sarrera doan da. Horrekin ba- tera, hilaren lehen eguaztenea- tan idazteko tailerra eskaintzen dute eta hirugarren eguazte- nean, berriz, irakurketa-tailerra eta, horrez gain, sarritan hain- bat gairi buruz jarduteko kafe tertuliak ere egiten dituzte. Hurrengoa datorren astean, eguaztanean izango da: Eskar Larrinagak gidatutakoa, 17:00- etatik 19:30era "Descubre las herramientas para potenciar el poder personal" tertulia egin- go dute Portalean, pastekin la- gunduta, gainera. Elkarteak da- raman martxa ikusita, gutxie- nez beste 25 urtez horrela ja- rraitzea opa diogu elkarteari. Zorionak!



Pagatxako bazkideetako askok ez zuen galdu nahi izan elkartearen 25. urteurrena gogoratzeko argazkia.

Kafe bat kolonbiar batekin

Txikitoak zerbitzen berezko estiloa dauka Kolonbiatik etorritako mutil honek, eta atsegina izatea berezkoa du. Estaziño kalean ibiltzen diren txikiteroekin txantxetan eta barrez ikusi dezakegu Jesus David Ríos uneoro, belaunaldi eta jaioterri guztiz ezberdineko pertsonen arteko topaketa alaian. Estaziño tabernan egon gara berarekin eta prestatu digun kafe gozoa hartu dugu. Kolonbiakoa izango ote da?

Josu edo Deivid

Calitik hurbil jaio zen Jesus David Ríos, Yumbo izeneko herrian, baina oso gazte etorri zen Euskal Herrira. Kolonbiako landa girotik Donostiara pasa zen. *“Txikia nintzenez jendea zaldi gainean ibiltzen zen kalean”*, gogoratzen du Jesús Davidek. Edo Josuk, edo Deivid. Horrela deitzen diote han eta hemen, Kolonbia eta Euskal Herria uztartuz. Donostian, oster, udaletxe aurrean dagoen karruselean bakarrik aurkitu zituen zaldiak.

Yumbo, bihurrikeriak egiteko tokia

Oroitzapen onak ditu Yumboren inguruan, *“familia giroa nagusi zen”*, baina bihurrikeriak egiteko tartea ere aurkitzen zuen Jesussek. *“Lagunekin kalean ibiltzen nintzen ahal nuen gehienetan”*. Oroitzapen onak, baina, ez da dira nahikoa Kolonbiara bizitzera bueltatu

nahi izateko. *“Han bizi den familiako bakarra amona da eta hona etortzen da aukera duenean, beraz, ez daukat hara joateko beharrik”*. Euskal Herrian pasatu du bizitzaren zati handiena, baina bere jaioterria ere maite du. Etorkizuna, hala ere, hemen irudikatzen du. *“Nire jaioterria barrenean daramat, baina bihurrikeriak egin nituen tokia bezala ikusten dut Kolonbia; Eibarren dago nire etxea”*.

Bost urte amarengandik 8.500 kilometrotara

Amak lana zeukan Kolonbian, baina bizitza hobea nahi zuen Jesus eta arrearentzat, eta maleta hartu zuen. *“Bere ahizpa bat Donostian bizi zen eta hara joan zen andra nagusi bat zaintzera”*. Jesusek lau urte besterik ez zituen eta amaren kargu geratu zen Yumbon. Behin bueltatu zen ama Kolonbiara eta Jesussek bere amarekin egotea besterik ez zuen nahi. *“Ez dakizu zein gogorra den amarengandik hainbeste denbora hain urrun bizi-*



Jesus David Riosek Estaziño tabernan egiten du lan. **Ekhi Belar**

tzea”. Euren zorionerako, seme-alabak ekarri ahal izan zituen amak Euskal Herrira.

Familiaren babesa eta beroa Eibarren

Donostiatik Madrilera joan zen Jesus, aita han bizi zelako, eta Espainiako hiriburuan urtebete egin eta gero Eibarrera etorri zen. *“Hemen bizi da nire familia ia osoa eta garrantzitsua da euren babesa sentitzea”*. Hala ere, etorri zen momentutik Euskal Herriak ondo

hartu zuela aitortu digu Jesussek. *“Ez naiz deseroso sentitu kanpokoa izateagatik eta hemengo jendearen jarreragatik gertatu da hori”*.

Kolonbiaren irudi okerra

Jesusek Kolonbiako lehen-gusuekin berba egiten du hango egoeraren berri edukitzeko, baina bere burua ez dago han. *“Ez dut nire jaioterriaz arnegatzen, baina oportetan bakarrik bueltatuko nintzateke”*. Hala ere, Kolonbia herrialde zoragarria dela dio, *“benetan ederra”*, eta bertara joateko gonbidapena egin die eibartarrei. *“Kolonbiarren irudi okerra dauka jendeak hemen, aurreiritziak nagusi dira”*. Telesail eta aspaldiko irudiez haratago dagoen herrialdea aldarrikatzen du Jesussek. *“Egunero bizimodua ateratzen duen jendeak egiten du Kolonbia”*.

Arbol que nace torcido jamás su tronco endereza

Okertuta jaiotzen den zuhaitzak inoiz ez du enborra zuzentzen



XIX. mendian be gerra zibillak ez ziran arraruarak izan Euskal Herrixan, batez be liberalen eta karlisten artekoak. Eibarko biztanle ixa guztiak alderdi liberalarekin lerrokatu ziran eta, Gipuzkoako beste herri askotan lez, harresitzeko ahalegiña egin zeban karlisten troperi aurre egittek. **Pedro Sarasketaren "Eibarko Kuadernuetan"** Gaspar de Urrietak, Eibarren izenian, Fernando de Zavala "bizkaitar traidore eta matxinuen buruari" emondako erantzuna jasotzen da. Zorionez, azken horrek ez zeban probatu nahi izan bigarrenez Urrietak esan zetsan guztia egixa zan ala ez. Idatzixa 1834ko uztaillaren 28kua da




JESUS GUTIERREZ
historialaria

Gogorrak benetan Eibarko liberalak

Bizkaitarrak badakixe Eibarrek bere kalietako esparruetan bakarrik 250 borrokalari izanda be, eurretako 180 gaiñera hain gaztiak izanda, Jaurregi brigadierraren aginduetara bi erregiñen alde borrokatuko dabela, aurreko urrian ondo erakutsi eben moduan matxinatu bizkaitarren ostikada eta arrantzen aurrian. Dakan kokagune kaskarrarengaitik, militarki berba egiñez, Eibar ezin dala harresittu be badakixe, baiña jakin biharko leukie Isabel II.ak hamen dakala 200 ehiztari kementsuekin osatutako soldadutaldia, ausarta bezin ikasia, Bernardino de Etxaluze komandante teniente koronel izukaitzaren aginduak jasotzen dittuenian astindu bikaiñak emoteko gauza dana, Bizkaiko zelaietan behin baiño gehixaguetan erakutsi izan daben moduan, bai burrukan, bai estrategixan be. Bernardo Sinoziain komandantia be gurekin dakagu: egurra emon detse bai egun baten eta baita hurrenguan be, matxinuak altxatu ziranetik erakutsi daben moduan, haraiñegun konparaziño batarako. Jakin deixela gizonezko danok armatuta gagozela, 14 urtetik hasi eta 70eraiñokuak. Eta beste ehun emakume heroi be armatuta dagozela. Eta herrixan dagozen beste emakume guztiak fusilla Zavala horrek baiño hobeto dakixela kargatzen. Danok gara Isabel II.aren armagiñak eta lurperatu dittugun hamasei matxino zalapartari eta larri zaurittuta eruan dittuen 70ak (izan be, badakigu jo dittugula) argi erakusten dabe Eibarko frentian ez dala nahikua ezkatuziarekin; bizkaitar matxinu baten bekokixa aurrian izatia nahikua da apuntau eta beriahala azertatzeko.

Oin mehatxua egin deskue esanaz euren zutabiak gure etxiak barriro be erraz botako dittuela erresistentzia egitten badetsegu. Ondo dakigu holako doilorkerixia egittek gauza dirala, haraiñegun be erakutsi zeskuen halakorik, lehelengo millioi erdi realeko harrapaketia egiñaz eta, jarraixan, Manuel de Zelaiaren biltegiak eta etxe edarrari sua emonez, Legarrako basarrixa, Oñateiko kondearen jauregiak eta inguruko taillarrekin batera. Sute horrek sortutako bildurrak ez desku oingoz erantzuna hartzen laga; baiña, barriro erretzen badabe Eibarko jurisdikziño etxeren bat, gure mendekuak historiaren orriak hartuko dittu, horren aurrian Afrikako hotentote jendailla zabal hori atzera be lotsagarri geratuko dalako, oin arte egin daben moduan, matxinatu ziranetik hamar hillabetera mespretxua besterik ez dabelako jaso Europa aurrian. Eibarrek Jaungoikuaren eta gizonen aurrian zin egindakua beteko dau. Legiaren babesian, hauts bihurtu eben oin dala berrogei urte; gaur egun, gure idoloa dan erregiñaren eta parekorik ez dakan Cristinaren alde egittek prest gagoz gerra egittek esker txarreko, traidore, libertizida, seduktore eta fanatikueri. Eibarrek bere seme-alaben odolarekin ipiñiko detsa sellua zuzena dan atxikimendu testigantza horri eta gustora hartuko luke Numantzia eta Saguntoren tokixa bizkaitar matxinuak Anibal edo Escipion bihurtuko balira. Ia Jaungoikuak errezoi tantanen bat eskintzen detsan Bizkaittik etorri jakun hanka biko piztiari.



Karlistadetan eibartarrak liberekin lerrokatu ziran, Isabel II.aren alde.

1985eko elurte handiak

Aurreko otsailaren 28an Eibar guztiz elurtuta esanatu zen eta asko 1985ean bizi izandakora itzuli ginen. Aurten ordu gutxitan, hego-haizeari esker, amets moduan gogoratu genuen gertatutakoa, elur-arrastoak ere desagertuta.


Baina 1985ekoa beste kontu bat izan zen. Orduan ez genituen denboraleak iragartzen dizkiguten gaur egungo baliabide sofistikuak, eta internet eta sare sozialak ere geroago etorri zitzaizkigun. Urte hartako urtarilaren 7an Euskal Herri guztia blokeatu zen eta autoendako kateak eta izotz-kontrako espraiak (3.890 eta 52 pezetatan, saltzen ziren, hurrenez hurren) agortu egin ziren. Txarreña, dena dela, handik egun batzuetara helduko zen. Aste guztia hainbat zerbitzurik gabe egon ondoren, 14tik 15erako gauean elurterik handiena heldu zen. Gasteizen egun horietan -17,8°C gutxienekoak jaso ziren.

Herria geldiarazita, alkateak boluntarioen laguntza eskatu zuen kaleak garbitzeko, ikastetxe asko itxita egon ziren hainbat egunetan eta merkatura astoak bueltatu ziren, Land Rover-ak ezin zirelako erabili. Birigarro, zozo eta txanxangorriak menditik hiri erdiraino jaitsi ziren janari bila. Ipuruako foball-zelaian 35 zentimetro elur neurtu ziren; konparaziorako, aurten 15era heldu zen.

Anekdotak gisa, 1985ean kaleratu zenez, 200 bat kaioren taldea ikusi zuten Gasteizen kostaldeko elur-ekaitzetik ihesi, baina hotza atzean lagatzeko ahaleginean muturreko hotzarekin egin zuten topo. Horrela, Errioxan kaiok arrain-haztegiak ere erasotu zituzten. Txoriak txori!

Bere gurasoak omentzeko lan batetik abiatuta, "belaunaldi oso baten istorioa" osatu du José María del Palacio. 'Secuelas de nuestras guerras y derrotas: de la República a la modélica Democracia' liburua aurkeztu zuen martitzenean Portalean, eta bere lanean batutakoaren inguruko hausnarketa egin zuen bertan. Gerra Zibila, diktadura eta Trantsizioa "jasan" zuten hogeita familia baino gehiagoren ikerketa egin du, oraina ezagutzeko iragana ezagutu behar delako.

JOSEMARIA DEL PALACIO (idazlea):



"Norberaren identitate eta kontzientziaren oinarrian dago memoria"

- Zortzi urteko ikerketaren ostean argitaratu duzu liburua. Lan neketsua izan da?

Familiaren inguruan ikertzen hasi nintzen, baina beste pertsona batzuk aurkitzen nituen neurrian, lana handitzen joan zen. Nire aitaren kartzelako kideak, irakasleak, berarekin Gerra Zibilean ibilitakoak... denetarik biografiak jaso ditut eta horrek ikerketa korapilatu du.

- Nolako zen zure familia?

Aita nekazari txikia zen, baina nire gurasoak ezkondu zirenean lur gehiago errentan hartzea pentsatu zuten. Gerra Zibila hasi zenean, erregimenaren aurkakoei bizia kendu ahal zien frankistek. Horregatik, herrian geratzea baino hobea zen Francoren armadan sartzea. Madrillgo frontera bidali zuten aita eta, errepublikarren lerroetara hurbildu zenean, beste aldera pasa zen. Herrian horren berri izan zutenean kartzelan sartu zuten ama. Aitak kide asko izan zituen Gerra Zibilean eta eurekin egoteko aukera izan dut ikerketa honetan. Belaunaldi oso baten istorioa osatu dut.

- Beraz, zure hasierako asmoa aldatu zen.

Nire gurasoak omentzeko lana egin nahi nuen hasieran. Aitarentzat jasanezina zen

porrota, kartzelan egotea eta bere emaztea frankisten aldean zegoela pentsatzea, eta burua galdu zuen horren ondorioz. Santoñatik Puerto de Santa Mariara eramane zuten eta zazpi urte egon zen han. Irten zenean herrira joan zen, baina hango agintariek bere askatasuna onartu arren, desterratzeko agindua eman zioten. Euskal Herrira etorri ziren, hemen familia zeukatelako.

- Nolako istorioak jaso dituzu ikertutako beste familien inguruan?

Gerraren ondoren lan egin, aberastasuna sortu eta gizartean lekua lortu arren, gerrako trauma ez da desagertzen. Belaunaldi horrek ezin izan ditu askatasun falta eta amets zapuztuak gainditu. Bestetik, Espainiako herriek balore eta printzipioen inguruan inboluzio handia izan dutela ikusi dut.

- Memoriari eusteko berebizikoa da ahaztuei ahotsa ematea?

Lan hau ez dut altruismoagatik egin, premia nuelako baizik. Kontzientzia kontua da. Norberaren identitate eta kontzientziaren oinarrian dago memoria. Gizarte-kontzientzia edukitzea eta bizi garen gizarte-motaz jabetzea garrantzitsua da, gaur egungo gizarteak gure historia garaikidean hondora-

tzen dituelako bere sustraiak. Historia ezagutzen baduzu, gizartearen kontzientzia edukiko duzu. Bestetik, identitatea ematen dizu, gauza onik ekarriko ez dizkizuten horiek zeintzuk diren jakingo duzulako. Politikoki orientatzeko balioko dizu.

- Gerraren eta porrotaren ondorioez idatzi duzu liburuan. Frankismoarekiko apurketarik eman da?

Trantsizioa transakzioa izan zen. Frankismoak erakundeak partitu zituen oposizio moderatuarekin, monarkia eta botere frankistak berrezartzeko.

- Esan ohi den bezala, 'lotuta eta ondo lotuta' utzi zuten guztia?

Eta kafea denontzat! Baina deskafeinatua zegoen.

- Eta nola apurtu daiteke ondo lotutako sistema hau?

Jatorriara jo behar dugu. Demokraziaren kalitatea gure esku dago eta interes gehiagorekin egin behar diegu aurre publikoak diren gauzei. "Politika garrantzitsuegia da politikarien esku uzteko", esan zuen norbaitek. Bestetik, ezkerria krisian dago. Aulkien jokoan bakarrik dabilta, lortu dezaket harrapakinarenean bila, baina oso arazo handiak dauzkagu gizartean.

Adrian Martinikorena (xakelaria)**“50 urtekoen aurka jokatu eta irabazteko gauza garela ikusteak asko aberasten gaitu gazteok”**

Azken bi asteburuetan Klub Deportiboko lokaletan jokatutako gure zonaldeko Eskolarteko xake txapelketan Deporreko bigarren taldearekin lehiatzen duen 14 urteko xakelariak infantil mailako txapela jantzi zuen. Eibarko Kirol Sarietako azken edizioan xakekoa bereganatu zuen Adrian Martinikorena Deporreko eskolan sortutako azkenetako harri bitxia dugu, bere gaztetasunean esperientzia ugari barneratzen diharduen neurrian. Itzion ikasten dabil eta gogoko du buruari bueltak ematea, aurkariaren erregeari xake egin aurretik.

- Ezustekorik bai Eskolartekoa irabazte-rakoan? Ze itxaropen zenituen?

Irabazteko aukera hor zegoen, baina zorte kontua ere izan da tartean. Erdi eta erdi: ni ondo ibili naiz, baina akaso aurkariei ez zaizkie gauzak hain ondo irten. Itxaropenei buruz, ondo pasatzea zen nire asmoa, besterik ez; aurkariak ere lagunak ditudalako.

- Halako lehiaketetan parte hartu izan duzu aurretik?

Gutxitan. Batez ere, Klub Deportiboko bigarren taldearekin jokatzen dut Gipuzkoako 3. mailako ligan eta hor noa esperientzia irabazten. 13-14 urtekoak gara laukotea osatzen dugunok, iaz hasi ginen laurok, eta 50 urte dituztenen aurka jokatzean asko ari gara ikasten. Hurrengo fasera-ko sailkatzeko aukera ere hor izan genuen, baina azken asteburuan galtzean ihes egin zigun. Eibartik irten eta Gipuzkoa osoan jokatzeak ere asko aberastu gaitu, beste partxada batekin hartzen ditugu lehiak.

- Zenbat urte daramatzazu jokatzen? Ze-lan hasi zinen xakean?

Zortzi urte izango nituen... 14 ditut. Aitak barneratu ninduen kirol honetan. Gaur egun irabazten badiot ere, ez dizkit gauzak erraz ipintzen.

- Pieza zuriekin ala beltzekin, zeinekin jarduten duzu erosoago?

Gehienok zuriak nahiago ditugula esango nuke. Batez ere zu hasteak abantaila txiki bat eskaintzen dizulako, besterik eze-



an beltzak zuk markatutako bidetik joan behar dutelako bakarrik bada ere. Ekimena zure esku dago, hasieran behintzat.

- Zertan laguntzen dizu xakeak partidetatik kanpo?

Etixerako lanetan, esaterako. Kontzentratzeko gaitasuna lantzeko modua da eta baita asteburuetan buruari buelta batzuk emateko ere. Aspertuta nagoenean, jokatuta eta pasatzen zait.

- Zenbat partida jokatzen duzu astero, batz bestea?

Egunero ez dugu jokatzen, ez pentsa! Barixakuetan Deporren partida batzuk egiten ditugu eta, gero, zapatu guztietan dugu ligako jardunaldia.

- Izan duzu minik egin dizun porrotik?

Bergaran jokatutako partida batean uste dut izan zela, oso mugimendu gutxikoa.

- Ze partida mota duzu gogokoen? Azkarrak akaso?

Sasoi batean izan zitekeen, itxarotea ez zitzaidalako gustatzen. Baina gaur egun, pentsatzeko ere astia hartzen dudalako, luzeagoekin ondo moldatzen naiz, eroso.

- Xake figura bat aukeratzekotan...

Dama edo erregina hartuko nuke, dituen mugimenduak jokatze-ko aukera aproposenak eskaintzen dizkizulako, eragin handiena izan dezaketena direlako.

- Noiz arte ikusten duzu zure burua xakean jokatzen?

Momentuz ez dut lagatzeko asmorik. Noiz arte? Ez dut presarik!

C A P I Bidebarrieta, 5 Tel. 943 201 547
www.capiestetica.es

CooLifting®
Lifting tratamendu BERRIA!

BETILE LUZAPENAK / LIFTING

Powered by **BODY**

GORPUTZ TRATAMENDUAK

PROGRAMA BERRIAK
Tratamendu drainatzaile eta birmodelatzailearen
4 saiorako bonoak

Masajeak

Hileroko bonoak
... astero bakarrik 20 minutu eginez

Pertsonalizatua

Ipini zaituz sasoi onean ...

Mogel Isasi BHI ikastetxeko ikasleek ikuskitun musikala prestatzen dihardute. Apirilaren 20an, 18:00etan aurkeztuko dute lana, Coliseo antzokian, eta sarreren salmenta astelehen honetan hasiko da.

Hilabeteak lanean eman eta gero, geroz eta gutxiago falta da Mogel Isasi BHI-ko ikasleek prestatu duten musikalaren emanaldirako. Ikastetxea Isasi kalean dagoela eta, hor sortutako mugimenduari erreferentzia egin nahi izan diote ikuskitunari izena ipintzeko orduan eta "Isaskara" deitu diote.

Aurreratu digutenez, "Saharar lurretatik ailegatutako neskatila bat izango du protagonista. Hemengo egunerokotasunean murgiltzen hasiko zaigu, zer gertatzen zaion, ingurukoek nola hartzen duten, bertako ohiturak nola deskribitzen dituen eta beste kontu ugari erakutsiko dizkigu lanak. Institutuko eguneroko arazoak agertuko zaizkigu, umore puntu batez, beti ere ikasleen ikuspuntutik. Eurentzat eskola zer den edo nola irudikatzen duten ikusi ahal izango dugu ordubete pasa iraungo duen emanaldian".



Astelehenean hasiko dira Mogel Isasikoen "Isaskara" musikalerako sarrerak saltzen

Musikalaren ekoizpenerako Hauspoa programa eta Eibar-ko Euskararen Plan Estrategikoa, biak lotu dituzte eta, ikastetxeko Gurasoen Elkartetik azaldu dutenez, "aipatu beharra dago, irakasleen laguntza izan duten arren, ikasleek egin dutela muskala ia ia goitik behera, horrek dakarren lan guztiarekin, are gehiago horrelako lanetan hasiberriak diren neska-mutilentzat. Bistan da muskala osatzea ez dela ahuntzaren gauerdiko eztula. Orduak behar dira lanean, sortuz eta ikasiz, entseguak eginez, gidoiak landuz, dantzak eraikiz

eta pertsonaien azalean interpretazioak burutuz. Zeregin guzti hauetan ibili dira, ahalegin berezia eginez, Mogel Isasiko ikasleak, berritzailea den musikalaren proiektua gauzatu ahal izateko. Ikasleen sortuntza gaitasuna eta arte tradizio ezberdinen lanketa gartzeaz gain, euskaraz topaleku dibertigarria izan dute gazteek, eskola orduetatik kanpo, bestelako kontuak ere euskaraz egin daitezkeela ikusiz eta frogatuz".

Mogel Isasi ikastetxeak ezarrita duen Hauspoa programari esker, ikasleek eskola

ordutegitik kanpora hainbat tailer eta ikastaro egiteko aukera izaten dute eta, ikasturte honetan, horiek baliatu dituzte musikala prestatzeko. Horrez gain, profesionalen laguntza eta gidaritza ere badute: Andrea Covadonga antzezlea interpretazio eta kantu zuzendaritzaz arduratzen da, dantza alorra gidatzen Josu Mujika irakasle eta koreografoak dihardu eta gidoia prestatzeko tailerra Jokin Bergara bertsolariak zuzendu du. Horrez gain, ikastetxeko irakasleak eta hainbat guraso laguntzen dabilta.



Funeraria-Ehortzetxe Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>Bulegoa Bidebarrieta, 20</p>	
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	



VIII. Lore, Landare eta Zuhaitz AZOKA

09:00/14:00

11:30ean

LORA LANDAKETA TAILERRA

Martxoaren 17an Urkizun





JULIO CALLEJA: "Untzagako kioskoa".



Eguaztenean goizeko 9:00etan eman zitzaion hasiera, Portaleko Areto Nagusian, ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako “VIII. Euskararen Transmisioari buruzko Mintegia”ri. Euskarari buruzko hainbat ikerketa, gogoeta, kezka eta egitasmo partekatu ziren. Aurtengo edizioan agerian geratu da euskararen biziberritzean funtsezkoa dela maitasunez jardutea gazteekin eta etorkinekin, eta diskurtsoetatik haratago praktika berriak behar dituela euskarak. Hitzaldien ostean, Jaime Altunak gidatutako mahainguruarekin amaitu zen aurtengo ekitaldia, 14:30ak aldera.



Aurkezpenean, Miren Garbiñe Mendizabal Hizkuntz Berdintasunerako zuzendaria Gipuzkoako Foru Aldundian, Patxi Lejardi Eibarko Udaleko euskara saileko burua eta Maider Aranberri ...eta kitto! Euskara Elkarteko idazkaria.

Unai Viana:**“Araba euskaldun eta euskaltzalea maite dut”**

Orain dela 2 urte Topaguneak Arabako gazteekin zer-bait egiteko erronka bota zion **Unai Vianari**. Izarrakoa da Unai, irakaslea lanbidez, eta ondo ezagutzen ditu Arabako herri txikiak. Urteak eman ditu hango gazteak ezagutzen eta euskararen inguruan proiektuak bultzatzen, horregatik *“erronkaren zati bat baneukan egin-da”*. Araba euskaldun eta euskaltzalea maite du Unai, eta maitasun horretatik abiatuta ekin zioten proiektuari. Araba osatzen duten 8 kuadriletako gazteak helburu berarekin bildu ziren, euskararen alde egitea. *“Euren herriari buruzko zer-bait kontatzera etortzeko eskatu nien, herrietakoak izateagatik daukagun harrotasun puntu horretatik. 60 gazte inguru batzea lortu genuen. Elkar ezagutzea zen helburua, ierarkiarik gabe, denek zeukaten maila berdina. Modu xume batean elkartu ginen eta denon iritzia ezinbestekoa zen. Proiektua euren zela sentitu zuten eta talde-lan batetik lagun-talde bat sortu genuen, euskararen alde borroka egiten duen lagun-taldea”*.

Aurten bigarren topaketa egin da eta lortu dute euren-dako leku bat sortzea, *“non euren hitza errespetatuko duten”*. Informazio trukaketa egiten da, beste herrietan egiten diren gauzak azaltzen dira: *“Dibertigarria izan da, talde natural bat sortu da. Etorkizun oparoa du Arabako gazteriak eta nire babes eta maitasun osoa daukate”*.

**Paula Kasares:****“Familia transmisioaren paradigma gaindituta dago, gaur egun sozializazioan ematen den transmisioaren garrantziaz hitz egin beharko genuke”**

Nafarroako Unibertsitatean irakaslea da **Paula Kasares** soziolinguista, eta baita euskal filologoa eta antropologoa ere. Ikerketa asko egin ditu arlo soziolinguistikoan eta haur-gaztetxo euskaldunen hizkuntza sozializazioaren gainean esku-hartzeko marko teoriko-metodologikoa proposatu zuen Paulak asteazkeneko saioan. Haurrak euskalduntzeko bidean egin behar den lanari koerentzia emateko teoria sendoa beharrezkoa dela aldarrikatu zuen.

Hizkuntz sozializazioari buruz egin zuen berba Kasaresek, *“hizkuntzak bizirik irautea dugu helburu, eta belaunaldi berriak hiztun bilakatuko direla ziurtatuko duen prozesua, hau da, hizkuntza sozializazioa da jorratu beharreko bidea”*. Hizkuntza sozializazioa, hiztun hasi berria taldean modu eraginkorrean jokatzea ahalbidetzen duen gizarte prozesua da, hizkuntzaz jabetze hutsetik haratago doana.

Leire Diaz de Gereñu eta Isabel Santamaria:**“Hizkuntza aniztasunak euskeraren biziberritzerako aliatua izan behar du”**

Gasteizko alde zaharreko Ramon Bajo ikastetxeko esperientzia ekarri zuten **Leire Diaz de Gereñu** eta **Isabel Santamaria** ikastetxeko guraso elkarteko kideek. Historia luzeko ikastetxea da, garai batean prestigio handia zuena. Baina A ereduari geratu zen eta 90. hamarkadatik aurrera alde zaharra osatzen zuten biztanleen beharrak ez zituen asetzen. Alde zaharra aniztasunez betetzen joan zen (euskaldunak, migratzaileak). *“Auzoan umeak euskaldundu nahi zituztenek beste ikastetxeetara bidaltzen zituzten, eta 2000. urtetik aurrerako migratzaileen etorrerarekin husten hasia zen eskolak berriz bete zituen bere gelak. D eredurako aldaketa 2006. urtean hasi zen guraso euskaldun eta euskaltzaleen eskariz. Aldaketa modu progresiboan egin zen. 2006an 2 urteko gelan %80k migratzaile jatorria zuen, eta gaur egun kopurua hau %35koa da”*. Migratzaile jatorrikoek D eredua ezarrita matrikulatzen jarraitu zuten. Bertako jatorria dutenei kostatu egin zaie, D eredua ezarri arren, euren sema-alabak eskolan matrikulatzea, baina egoera aldatu dela begi-bistakoa da.

Euren esanetan, *“euskaldundu nahi duen eskola ezin da zerbitzu bat bezala ikusi. Eskola-komunitate osoaren inplikazioa behar da (guraso, irakasle, auzoko eragileak...) Ekitaldi asko egiten ditugu: eskolako jaia, urtebetetze festak, tailerrak, euskal kultura zabaldu, baratze ekologikoa, kohesioa bultzatzeko ekimenak... Jarduera guzti hauetan euskara erdigunean jartzeko saiatzen gara, eta beste hizkuntza gutxitu batzuk ere; hizkuntz aniztasuna euskararen biziberritzerako aliatua izan behar du”*. Aisialdi elkarteak ere sortu da elkarezagutza eta auzoaren bizikidetzatza bultzateko. Helburuetako bat euskara eta euskararekin zerikusia daukana etorkinengana hurbiltzea da, hauen integrazioa zabala eta aberasgarria ahalbidetu.

Euskal soziolinguistikaren tradizioa aztertu du Paula Kasaresek modu kritiko batean. Bere esanetan, *“ikergunea etxera edo familiara mugatu dute. Ikuspegi bertikala kontuan hartu da eta ez da kontuan hartu ikuspegi horizontala oso inportantea dela. Zer behar du haurrak euskaldun hazteko? Eskola bakarrik edo etxea bakarrik ez da nahikoa. Beti pentsatu dugu familia nahikoa zela euskararen transmisioa bermatzeko, baina ni ez nago hain ziur. Beharrezkoak ditugu esparru gehiago: aisialdi taldeak, kirola, era askotako eragileak... Prozesu orohartzailea izan behar du”*.

“Euskaldun hazteko euskaraz aditzeko eta aritzeko aukera usua eta ohikoa behar du haurrak, kuantitatiboki nahikoa (erdaraz bezainbestekoa edo ahal den parekoa behinik behin) eta kualitatiboki askotarikoa (eskolara ez mugatua).

Eneko Gorri:

“Bidegurutzean dago euskara Ipar Euskal Herrian”



Eneko Gorri Biarritzeko Herri Etxeko euskara teknikaria da eta Iparraldeko egoera eta erronkei buruzko gogoeta ekarri zuen Mintegira. Iparraldean hizkuntza politikak orain dela 10 urte garatzen hasi zirela eta, beraz, orain arte *“inmobilismo handi batean bizi izan gara”*. Dena dela, euskal mugimendua orain dela 50 urte hasi zela eta *“gaur egun daukaguna militante guztien lanaren ondorioa dela”* azpimarratu zuen. Euskararen ofizialtasun ezak dakartzan kalte-erri buruz mintzatu zen Eneko Gorri: *“Ipar Euskal Herrian euskarak ez du estatu legalik, estatu frantsesak ez ditu hizkuntza gutxiuak babesten eta alegalitate egoera batean bizi da euskara. Beraz, korapilo baten erdian kokatzen da”*.

Euskararen egoera kezagarria bada ere, datu positiboak ekarri nahi izan zituen Eneko Gorrik. Adibidez, ezagutzari dagokionez, datu absolutuak begiratzen badiegu, euskarak lehen aldiz historian ez duela hiztunik galdu. Haurrak eta adinduak dira euskaldunak eta *“zama guztia haur eta gazteen gain izango da etorkizunean”*. Ezagutza eskolaren bitartez ematen da, gazteen %40k ikastetxearen bitartez ikasten du, eta beraz, %60k ez du euskara ikasten. Erabilera oso baxua da, %5koa. Etorkizuneko erronkei begiraturik, helduentzat eta haurrentzat euskalduntzeko kanal berriak zabaldu behar direla uste du Gorrik.

Ipar Euskal Herrian euskararen aldeko kontsentsu sozial bat eraiki dela eta *“haize on horiek eremu sozial berriak irabazteko erabili behar direla”* pentsatzen du Gorrik. Izan ere, *“hizkuntza politikak beregiritatzen ari diren momentu honetan, orain da garaia kanal berriak sortzeko”*. Bidegurutzet batean kokatzen da euskara eta datuak hilabeteetan erabakiko da nork hartuko duen lidergoa, Erkidegoak edo Euskararen Erakunde Publikoak.

Edorta Lopez Rey:

“10.000 lagun inguru biltzen dira astero euskara praktikatzeko”



Edorta Lopez AEK-ko Praktikatuko zerbitzuko koordinatzailea da. Bere esanetan, *“euskara ikasteko baliabideak optimizatu behar ditugu, ahalik eta arinen ikasteko. Hitzun aktiboak bilakatzea eta harreman sareak sortzea bilatzen dugu”*.

2005ean hainbat gune soziolinguistikoetan euskarazko harreman-sareak sortzen eta ekintza-planak sustatzen eta koordinatzen hasi ziren. Mintzapraktika egitasmoak antolatzen dituzte, mintzalagun/berbalagun, gurasolagun programak, euskalkiak ikasteko mintzataldeak... Horrez gain, euskarazko harreman-sare berriak sortzen dituzte ekintza osagarrien bidez, hala nola, kultur eta aisialdi-eko eskaintza, udako ibiltariak, zaletasunen araberako interes-taldekak eta jarduerak...

Arrakasta handiena herri erdaldunetan izaten da, *“behar handiagoa dagoelako”*, eta zerbitzu hauek erabiltzen dituztenen profilari dagokionean *“40 urte inguruko emakume bizkaitarra dela”* esan daiteke.

2017an 10.000 lagunetik gora biltzen ziren astero-astero taldeetan, antolatutako ekintza osagarrietan, xede taldeetan, tailerretan... Eta 2018an kopuru hori handitzea aurreikusten dute. Mintzapraktika taldeei dagokienez, 2017an 3.467 partaide ibili dira abian dituzten egitasmoetan. Sartu-irten handiko egitasmoak badira ere, *“azken urteotako joera positiboa mantentzen dela argi ikusten da”*. %73 emakumezkoak dira eta adinaren batz bestekoa 38 urtekoa da. %73 bidelaria da eta %27 bidelaguna.

Azken urteotan gazteekin batera mintzodromoak edo ekintza bateratuak egin dira eta etorri berriei sare txikien babesa eskaintzen diete (normalean, bikoteak).

Errebal, 16 943-509027

asketa.mueblesdica.es

lorentzo.asketa@gmail.com



ASKETA
ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA
SERVICIO INTEGRAL DE OBRAS



– SUKALDEAK
– BAINUAK
– ETXEKO
ALTZARIAK



Amelia Barquin:

"Hezkuntza sistemak aurre egin dio etorkinen fenomenoari, baina ez sistema osoak"

Ikasle etorkinak eta eskolari buruzko gogoeta eskaini zuen **Amelia Barquin** MUNeko irakasleak. "Ikasle desiatuak diren eta eskolak erakarri nahi dituzten ikasleak diren" planteatu zuen Ameliak eta galdera asko laga zituen mahai gainean, "ze eskolatan pilatzen dira ume hauek? Ongietorriak dira?" Orain dela hogeitun urte ez bezala, gaur egun etorkinen kopurua aintzat hartzeko modukoa da. Orain dela bi hamarkada, hezkuntza sisteman etorkinen seme-alaba ez zen %1 ere. Oraintxe, EAEn, %7 da gutxi gorabehera. Sare publikoan etorkinen kopurua askoz handiagoa da, %74 hain zuen ere. Errenta bajukoak dira eta haur asko ikasturtea hasita dagoenean etortzen dira, eta batzuk premia espezifikokoak dituzte. Mugikortasun handia daukate, edozein momentutan joan egiten dira (pobreen mugikortasuna deritzo). Amelia Barquinek azaldu zuenez, "fenomeno honekin ez genuen kontaktzen orain dela urte batzuk, ez zegoen iragarrita. Ikasle etorkinak dituzten eskolak ikasten ari dira hau guztia kudeatzen, baina ez sistema osoak. Hezkuntza sistemak aurre egin dio, baina ez sistema osoak. Eskola batzuk lan asko egin dute eta beste batzuk bat ere ez. Hori guztiari erantzuteak lan gehiago eskatzen du, eta adminis-

trazioak ez dio horri behar bezala erantzuten. Baliabiderik ez badago ikasle horiek desabantailan daude eskolan".

Estrategikoa da "etorri gurekin, ikasi euskara" mezua, Barquinen ustez. "Etortzen dira eta gure egoera soziolinguistikoarekin egiten dute topo, eta ez dute erraz ulertzen. Eta nola ulertu? Zergatik ikasi behar dute beraie seme-alabek, kalean entzuten ez den hizkuntza bat? Hala ere, esan egin behar zaie ezinezkoa dela haien seme-alabek gaztelaniaz ez ikastea nahiz eta eskola euskaraz izan. Euskara jakiteak abantailak dituela azaldu behar zaie eta beste minorizazio batera eramango ez dituela argi esan behar zaie".

Ikasle horiek maitatu eta erakarri behar ditugula eta praktikak aldatu behar direla dio Barquinek. "Nongoak diren, noiz uzten dioten etorkin izateari... Ume hauei transmititu behar zaie hemengoak direla, baldintzarik gabe. Erronka handia daukagu gizarlean eta hezkuntza sisteman. Aniztasunaren diskurtsoa hedatua dago, baina gero, praktikan, guraso eta irakasle askok ez dute ikasle hauekin lan egin nahi. Hezkuntza-kalitatea jaisten dela eta gelak erdaldundu egiten direla esaten dute batzuk. Kezka horiek ditugu eta guzti horretaz hitz egin beharra dago".



Imanol Canales eta Garikoitz Lasa:


"Antzerkia euskararen erabilerarako ezinbestekoak diren autoestima, afektibitatea, erosotasuna... garatzeko tresna paregabea da"

Bilboko Ave Maria ikastetxeko **Imanol Canales** eta "Antzerk-hizkuntza-ko **Garikoitz Lasa** antzerkiaren bidez euskara lantzen duen proiektua azaldu zuten. Eskolako Kurrikulumean sartutako programa da, ikasturte osoan egiten dena. Garikoitzen esanetan, "antzerkia ikasteko, egiteko eta taldean zoriontsuago izateko aukera ematen diegu LH 5-6 eta DBHko ikasleei, euskararen bidez. Harremanak lantzen ditugu eta euskara txarto egiteko aukera aldarrikatzen dugu". Ave Maria ikastetxea Txurdinagan dago, Otxarkoaga inguruan, eta euskararekiko jarrera ez da erraza. Ikasle guztiak inportante sentiarazi nahi dituzte, "hizkuntza ez dute menperatzen, lotsa sentitzen dute eta batzutan kontzezio batzuk egin behar izaten ditugu". Antzerki teknikak era-

kusten dizkiete, "zailtasun pila bat ditu antzerkiak eta ikasturte amaieran, nolako lana egin duten ikustean, "flipatuta" gelditzen dira. Eredu baikorrak eta alaiak bultzatu nahi ditugu ekintza motibagarri batekin, antzerkiarekin".

Hizkuntza ulertzeaz gain, hizkuntzak dakarrena barneratzea lortzen dute, "gauza bat da ulertu eta bestea geurea egitea, eta hori sentimenduen bidez egiten dugu".

Bizkaiko herri askotan egiten ari dira horrelako proiektuak. Helburuak euskara planek markatzen dituzte eta proiektu bakoitza desberdina izaten da. Horrelako zerbait egiteko irakasleen inplikazioa oso garrantzitsua dela azpimarratu zuten. Eragileak irakasleak, eskolak, udalak eta beste eragile batzuk izaten dira.



Laura Martinena Uribesalgo III. Urteurrena 2015-03-06

BEHIN GOZATU IZAN DUGUNA EZ DUGU INOIZ GALDUKO,
BARRU-BARRUTIK MAITATUTAKO GUZTIA GURE-GUREA
BIHURTZEN DA.

Maite zaitugu. Zure lagunak.

Eskozia la Bravak bereziki girotuko du R. Madrilen bisita, Magdeburgoko peñari harrera eginez

Berez Real Madrilen bisita herriko kaleak bestela ere animatzen dituen arren, oraingoan biharko egunak partidu aurreko eta geroko jai-giro berezia izango du, Magdeburgotik etorririko diren 50etik gora Nickchups-ei egingo zaien harrerarekin. Eskozia la Brava herriko peñak harrera berezia antolatu du Alemaniatik etorririko diren Eibar FT-ko azken peñakoei ongi-etorria egiteko. Ekitaldiek Untzaga plaza izango dute gune nagusia eta, 09:55ean udaletxean Nickchups-ei harrera egin eta gero (Miguel de los Toyos alkatea, Eskozia la Brava eta Eibar FT-ren eskutik), jarraian txosna zabalduko dute, pintxoak eta edariak saltzeko. Ordu horretan hasiko da goiz osorako antolatutako ikuskizuna ere: Ernesto Ezpeleta "Bihurri" Eskozia la Bravaren ohorezko bazkideak 100 minututan osatu beharreko lan-saioari ekingo dio 10:00etan. Hasteko 3 metroko perimetroa duen enborra moztuko du esku biek, jarraian bi metro eta erdikoa esku bakarra-



rekin eta, amaitzeko, lau auto erdibituko ditu aizkora erabilia. Joseba Combarro Eskozia la Bravaren ordezkariak dioenez, "dena lotzeak ahalegin handia eskatu badigu ere, merezi du hain gureak diren herri-kirolak erakustea kanpotik datozenei".

Behin Ipuruara igota, banderak astinduz hartuko dute Eibar zelaian eta, Real Madrilen aurkako partiduaren amaieran, errugbian hain ohikoa den hirugarren zatiaren tarteak izango dute. Ipur Sagardotegian Eibar FT eta Magdeburg FC-eko ordezkarien arteko anaitasun-bazkaria izango da, 15:30ean hasita.

Partidu zailak Eibarko waterpolistentzat

Gaur gauean, 21:45ean, Orbea kiroldegian Urbat Urkotronik talde seniorrak Euskal Herriko 1. Mailako liderra hartuko du. Portugalete Claret Askartzarekin dihardu liga irabazteko borrokan eta gaurko puntuak oso beharrezkoak ditu lidergoari eusteko. Eibartarrak, bestalde, sailkapeneko 5. postuan daude, eroso, aipatutako talde bien eta CW 9802 eta Bidasoa XXI taldeen atzetik. Emakumezkoen Urbat IKE ere ondo sailkatuta dago Euskal Herriko Ligan, 4. postuan, Claret Askartza, CW 9802 eta Leioaren atzetik. Oraingo honetan bigarren sailkatuaren igerilekuan jokatu beharko du etzi eguerdian. Azken urtekoari jarraituta, bestalde, jubencil mailako taldea, orain arte jokaturako partidu guztiak irabazita, lider dago euren mailako sailkapenean.

kumezkoen Urbat IKE ere ondo sailkatuta dago Euskal Herriko Ligan, 4. postuan, Claret Askartza, CW 9802 eta Leioaren atzetik. Oraingo honetan bigarren sailkatuaren igerilekuan jokatu beharko du etzi eguerdian. Azken urtekoari jarraituta, bestalde, jubencil mailako taldea, orain arte jokaturako partidu guztiak irabazita, lider dago euren mailako sailkapenean.

Avia Eibar Rugbyko emakumezkoek historia egin zuten Gasteizen

Emakumezkoen taldeak denboraldia hasi zuenetik jokoan izan duen bilakaera maila handikoa izan da; horren adibide, azken jardunaldian Gasteizen eskuratutako garaipen garbia (10-43), eibartarrek arabarrei irabazten dieten historiako lehen aldian. Gamarran jokaturako Ohorezko B Mailarako igoera faseko hirugarren jardunaldiko partiduan eibartarrek orain dela hiru aste lortu ez zutena (gertu egon ziren orduan ere) oraingoan bete zuten. Gernikan

izango dute hurrengo erronka bihar bertan, 17:00etan hasita.

Rochelleko txapelketa

Bestalde, Amaiur Mayo eta Kaiane Bedones Eibarko jokalariek Euskadiko 7ko selekzioarekin hartuko dute parte, azken honek aurten Europan jokatu duen lehen txapelketan. La Rochelle, Staps Orsa Paris eta Kedge Bordeaux izango ditu aurkari txapelketako finalurrekoak erabaki aurretik.



ASTEBURUKO AGENDA

FOBALLA

1. Maila

Eibar - Real Madrid (bihar, 13:00)

Emakumezkoen 2. Maila

Eibar - Osasuna (etzi, 12:30)

2. B Maila

Vitoria - Peña Sport (etzi, 12:15)

Emakumezkoen Lurralde Maila

Eibar - Anaitasuna (bihar, 17:30)

Erregional Gorengo Maila

Eibar Urko - Antzuola (bihar, 18:45)

1. Erregionala

Zarautz - Eibartarrak (bihar, 17:00)

JUBENILAK

Ohorezko Maila Nazionala

Eibar - Numancia (etzi, 15:45)

KADETEAK

Euskal Liga

Eibar - Tolosa (etzi, 18:00)

FOBALL-ZALETUA

Bar Areto - Ipur Sagardoteg. (bihar, 09:00)

Slow XOK - Bar Txoko (bihar, 09:00)

Bar Arkupe - Sporting (bihar, 10:30)

Esmorga - Durango (bihar, 12:00)

Reformas Hiru - Azkena Adahi (etzi, 09:00)

Tankemans - Feredu Solut. (etzi, 09:00)

Alkideba - Garajes Garcia (etzi, 10:30)

ESKUBALOIA

1. Nazional Maila

Somos Eibar - Tolosa (bihar, 19:00)

Emakumezkoen Euskadiko Txapelketa

Avia Eibar - Galdakao (etzi, 11:45)

Gipuzkoako 1. Maila

Tolosa - Haritza (bihar, 19:30)

ERRUGBIA

Emakumezkoen Euskal Liga

Gernika - Avia Eibar (bihar, 17:00)

SASKIBALOIA

Gipuzkoako 3. Maila

Katu Kale - Antigua-Luberri A (bihar, 18:15)

WATERPOLOA

Euskal Herriko 1. Maila

Urbat Urkotron. - Portugalete (gaur, 21:45)

Emakumezkoen Euskal Herriko 1. Maila

CW 9802 - Urbat IKE (etzi, 12:30)

Itzulia Basque Country-k berrikuntza asko izango ditu "lehiakortasuna handitzeko"

Hasteko, orain arte Euskal Herriko Itzulia zena izen berriarekin aurkeztu zuten aurreko asteko barixakuan Eibar-ko udaletxean egindako ekitaldian. Aurrerantzean Itzulia Basque Country izango da. "Euskal izenak eta ingelesezko abizenek osatuko dute izen ofizial bakarra, gaztelaniazko ez dago" argitu zuen Julian Eraso probaren zuzendariak aldaketa hori babesteko. Iaz lasterketa jokatu baino hilabete batzuk lehenago probaren ardura hartu zuen gure herriko taldekoek Euskal Herriko Itzuliarena baino euren aurretik antolatutako Euskal Bizikletaren ezaugarriak ekarri dizkiote aste guztiko lasterketari eta, horren adibide, erlojupekoa azken egunean izan beharrean aurten probaren erdialdean

izango da. Aurrekoaz gain eta, "talde indartsuenek lasterketa blokeatzea zailagoa egiteko", etapa guztietan gainsariak egongo dira, eta ez helmugan bakarrik, baita tarteko esprintetan ere. Helmugetan sei, hiru eta segundo bat banatuko dituzte hiru lehenen artean, eta esprint berezietan hiru, bi eta bat.

Zarautzen hasi eta Arrateko santutegian amaituko den itzulia sei etapa izango ditu, astelehenetik zapatuta arte jokatzekoak eta, erlojupekoa kenduta, beste guztiak gorabeheraz betetakoak izango dira. Aste Santuaren amaieran hasiko da Itzulia eta apirilaren 2tik 7ra arte iraungo du, hurrengo egunean, domekan, Valenciaga Memoriala afizionatuen mailako estatuko probarik garrantzitsuenak



lekukoa hartu eta txirrindularizaleei urteko aste berezienarekin aurrez-aurre gozatzeko aukera bikaina eskainiz. Astelehenean Zarautzen hasi eta amaituko da etapa, 2. mailako bi mendi eta 3. mailako beste hiru gairiditu ondoren. Martitzenean Zarautzetik Bermeora joango dira, 1. mailako Sollube, 2. mailako beste bat eta 3. mailako biri aurre egiteko. Eguaztenean Bermeotik Uribarri Gaubeara joko du tropelak, 2. mailako mendate bat eta 3. mailako bi bidean aurkituko dituzte-

la. Eguenean 19 kilometroko Lodosa-Lodosa izango dute txirrindulariek zain, erabat laua den ibilbidearekin. Barixakuan Gasteiztik Eibarrera etorriko dira, bidean 1. mailako Azurki eta 2. mailako Elosua eta Endoia gairiditu eta gero. Azkenik, zapatuan, apirilaren 7an, zortzi mendatei egin beharko diete aurre Eibarren hasi eta Arraten amaituko den 122 kilometrotako etapa: Trabakua, Gontzagarigana, Bizkaiko Begiratokia, Muniketa, Elgeta, Ixua, Urkaregi eta Usartza.

106 eibartar 29. Lilatoian

Aurreko domekan Donostian jokatu zen Lilatoian 29. edizioan guztira 5.218 emakumezko helmugaratu ziren eta, euren artean, 106k gure herria ordezkatu zuten. Lorea Ayala donostiarrak irabazi zuen hasieran 5.240 parte-hartzaile izan zituen proba (22k ez zuten proba amaitu), 18 minutu eta 7 segundoko denbora eginez 5 kilometroak osatzeko. Eibartarrek eskuratutako postua eta denbora gure web orrian aurkitu dezakezue.



Nerea Galarza, Jone Larramendi eta Maria Arregi domekako proban.

Jainaga Espainiako txapelkun

Eibarko xabalina jaurtitzailak, bere egunik onena izan gabe ere, Espainiako txapela jantzi zuen aurreko asteburuan Montijon jokaturako jaurtiketa luzeen Espainiako txapelketan. Oraingoan 69,51 metroko jaurtiketa nahikoa izan zuen txapela bereganatzeko, orain dela gutxi lortutako marka baino 10 metro gutxiago eginez. Espainiako txapelketetan ere, Orensen jokaturako 20 urtetik azpikoenean, Klub Deportiboko Andoni Calbano hamarreko batengatik ez zen sailkatu hurrengo faserako. Eta Iñigo Egidazuk Salamancako Espainiako Master txapelketan hartu zuen parte.

47 lagun izan ziren Gazta Ibilbidearen hirugarren etapa

Eibarko Klub Deportiboko mendi batzordeak aurten hasitako Gaztaren Ibilbidearen hirugarren etapa bete zuen aurreko zapatuan eta, behin ibilbidearen ekuadorrera iritsita, atsedena hartuko du urrira arte. Urriko Mirandaola-Arantzazu eta azaroan egin beharreko Arantzazu-Otzaurre eta Otzaurre-Lizarrusti etapek osatuko dute ibilbidea. Zapatuan Seguratik Legazpira joan zen 47 laguneko taldea, Zerain, Mutiloa eta Barnaola zeharkatuz. Eguraldia ere lagun izan zuten, "eguzkitsua denbora guztian". Troi erreka-aldamenetik, "meataritzaren aztarnak ikusteko aukera izan genuen: eraikuntzaren arrastoak, dikeak eta trenbideak" diote mendizaleek. Erdi Arotik XX. mende amaiera arte martxan egon zen meataritza ezagutzeaz gain, Otaño tontorrera (829 metro) ere igo ziren, bertatik "Aitzgorri mendikate elurtuaren paisaia paregabeaz" gozatzeko. Eibarrera 18:00ak jota heldu baino lehen, eguneko gazta zozketatu zuten; Periko Perez izan zen irabazlea.



134 parte-hartzaile izan zituen Eibarko 27. Duatloiak

112 gizonetako eta 22 emakumezko hartu zuten parte distantzia horretako euskal zirkuitoko hirugarren proban eta ezustekorik ere izan zen bertan, emakumezkoen lasterketan helmugan lehena izan zen Irene Loizate deskalkifikatu baitzuten (bizikleta bere tokian ondo ez lagatzeagatik antxitxiketan egin beharreko azken zatia hasi aurretik) eta garaipena Yepa! Triatloi Klubeko Helene Alberdi helmugan bigarrenarentzat izan zen. Urko Herran onena izan zen gizonetako artean, Ascentium Arabako bi taldekideen aurretik, Ander Garcari azken esprintean irabaziz. Herranek 50 minutu eta 29 segundo behar izan zituen Eibarko 27. Duatloia irabazteko, segundo bakarrera sartu



Helene Alberdi eta Urko Herran nagusitu ziren aurreko zapatuan.

zen Garcia eta ia minutu batera Joanes Goitisoloko arabarrak guztiz nagusi izan ziren proban. Emakumezkoetan Alberdik 58'50"-ko denbora behar izan zuen proba amaitzeko eta Natalia Gomezek (Sestao) eta Estefania Gomezek (Independiente) osatu zuten podiuma.

Helene Alberdik jokoan zegoen Gipuzkoako Duatloi Sprint txapela ere jantzi zuen, gizonetako proban 9. postuan helmugaratu zen Hossain Kaanacherekin batera. Delteco Eibar Triatloi Taldeak antolatutako proban herriko lau ordezkari izan genituen: Andoni Ma-

yo (26. helmugan), Pablo Zabala (47. eta zazpigarren bere bere mailan), Roberto Gartzia (52. eta bederatzigarren bere mailan) eta Jon Illaramendi (65. eta bosgarrena bere mailan). Gure kaleetan izan ziren beste bi eibartar ere, Saltoki taldearekin parte hartzen: Aitziber Urkiola 5. izan zen eta Ane Ziaran 14. Taldeka, gainera, bigarren sailkatu ziren.

Hurrengo egunean, domekan, Roberto Gartziak bezperakoa biribiltzea erabaki zuen eta Basaurin hartu zuen parte, 37. postuan amaitzeko (9. bere bere mailan). Gonzalo Saez taldekidea izan zuen lagun eta helmugan aurretik (29. eta laugarren bere bere mailan). Pello Osorok, bere aldetik, 6. postuan amaitu zuen Orihuelan.



Paula Gabilondo igerilaria dominen lehian izan zen

Aurreko asteburuan Tolosako Usabal kiroldegian jokatutako igeriketako infantil mailako Euskal Herriko neguko txapelketan, Eibar Igerixan klubeko Paula Gabilondo ez zen konformatu parte hartzearekin eta dominen borrokan izan zen azkeneraino. Zortea ez zuen alde izan eta laugarren sailkatu zen bai 100 metro bular eta baita 400 metro estilotan ere. Asteburu honetan benjaminak Bergaran arituko dira eta alebinak Eibarren.

Eibar Eskubaloiko jubenil eta kadete taldeak garaile azken jardunaldian

Jardunaldi ona izan zen azkena Eibar Eskubaloiko talde ia gehienentzat, jubeniletako ordezkari biak, mutilen zein nesken taldeak, garaile izan zirelako euren partiduetan; horrez gain, kadete mailakoek ere jardunaldi aproposa izan zuten, lautik hiru garaile izan zirelako (mutilen talde biek eta nesken lehen taldea).

Senior mailan, emakumezkoen taldeak atsedena izan zuen eta, gizonetako arloan, Somos talde nagusiak galdu egin zuen Uharterekin Nafarroako lurretan (30-24) eta Gipuzkoako 1. Mailan jokatzen duen bigarren taldeak beste garaipen bat eskuratu zuen, oraingoan Oñatin Aloña Mendiri 23-30 gailenduta. **Goi-ko argazkian, jubenil mailako Avia Eibar Eskubaloia taldea.**



JOSE ALBERTO IRIONDO LIZARRALDE "TITO"

1. urteurrena: 2017-03-11

Izan zarenagatik eta erakutsi diguzunagatik
ez zaitugu inoiz ahaztuko

Ezkontza batean egongo bagina bezala sentituko gara HIKA Teatroaren Txarriboda ikuskizunean. Hori ziurtatu digu, behintzat, Agurtzane Intxaurraga zuzendaria. Gonbidatuak ez dira zertan dotore joan behar eta ez dute diruz betetako gutunik eman beharko ere. Sarrera erosi (12 euro; 8,50 euro Coliseoaren Lagunentzat) eta domekan 20:30etan Coliseora joan. Kitto! Adi egon, pertsona ezagunak ikusi ahal dituzue txarriboda honetan.

AGURTZANE INTXAURRAGA

(antzerki zuzendaria):

“Biharamun benetan gozoa laga digu Txarribodak”

- Ezkontza bat taularatuko duzue antzezlanean. Ezkontzak teatralak dira berez?

Horregatik hartu genuen gai hori. Ezkontzak ez dira sekula modaz pasa. Ezkongaiak ilusio handiz hartzen dute gertakizuna, baina gonbidatuak ere zirrara bereziarekin kontatzen dute ezkontza bat dutela. Festa handia da eta horren inguruan sortzen den liturgia ikusgarria da.

- Nolako ezkontza da zuen Txarribodan?

Ezkongaiak eta gonbidatuak jatetxera iristean hasten da istorioa, baina liturgia horrek dituen parteak islatzen ditugu eta ikuslea ezkontza batean egongo balitz bezala sentituko da. Ezkontzetan itxurakeria izaten da nagusi eta horren ondorioz hainbat ezusteko gertatuko dira antzezlanean zehar. Eder ikusten zen horretatik emozio basatiak aterako dira.

- Kabareta ekarri duzue guzti hori irudikatzeke. Zein asmorekin?

Kabareta gordintasuna, umorea, kritika soziala, filtrorik gabeko emozioa eta musika delako.

- Zuzendari moduan nolako erronka izan da kabaret bat zuzentzea?

Hika Teatroaren hastapenetan egin izan digu kabaretak eta beti gustatu izan zaizkit. Kabareta baino, ikuskizun hau sortzea

izan da erronka niretzat, inprobisaziotik abiatu garelako.

- Inprobisaziotik? Nola?

Aurretik elkarrekin lan egin gabeko sei aktore bildu ziren, nik neuk ere Patxi Gonzalezekin bakarrik egin nuen lan zuzenean aurretik. Saltsa handia geneukan esku artean. Bi astez ibili ginen inprobisazioak egiten eta hortik aurrera hori harilkatzen hasi behar nintzen.

- Euskal kabareta egitea ez da ohikoa. Nola moldatu zarete?

Hemen ez daukagu kabareten erreferentziarik, Estatu Batuetara edo Britania Handiko music hallera jo behar dugu. Beraz, kabaret hau geure nola egin pentsatu behar izan genuen eta Txarriboda izenburua jarri genion. Ezkontza adierazteko euskerak duen hitz propioa da txarriboda, nahiz eta txerri hilketari lotuta dagoen, eta kabaretak nondik nora joan behar zuen zehaztu zigun.

- Antzezlanerako propio sortutako musika erabili duzue?

Ezkontza batean zein musika nahiko nukeen pentsatu eta hemengo musika jartzea erabaki nuen. Izenburuaz gain, hori izan da kabareta geure egiteko beste gako bat. Lehen eta oraingo euskal melodiek




nortasuna eman diote antzezlaniari. Abes-tien letra gehienak Onintza Enbeitak egin ditu, beste bi ez ditugu ukitu eta Patxi Gonzalez aktoreak abesti bat sortu du. Maisua da Patxi!

- Nolako biharamuna lagatzen du Txarribodak?

Hain prozesu indartsua izan eta gero beldurrez negoen. Ikuskizuna sortzen duzun momentu berean testua sortzea erronka handia da, baina biharamun benetan gozoa utzi digu Txarribodak. Publikoa poz-pez irteten da, festa batean egon den sentsazioarekin. Haserrealdiak eta hausnarketarako momentuak daude, baina publikoa festarako prest dago hasieratik. Aspalditik neukan buruan publikoa erakartzeko formulak aurkitzea eta, ezkontza batek demaseko liturgia duenez, publikoak modu aktiboan parte-hartzeko aukera ematen zigula pentsatu nuen. Beraz, herri bakoitzean aureskua dantzatzeko duen bikotea, bertsolari bat eta antzezlaneko abesti bat dantzatzeko duten pertsonak biltzen saiatzen gara. Lan handia ematen digu horrek, baina taula gainean publikoarentzat ezaguna den jendea ikusteak plus bat ematen dio ikuskizunari.






Bost lan zazpi egunetan Antzerki Jardunaldietan

Gaurtik hasita eta datorren asteko eguenera arte ia etenik gabeko antzerki-maratoiaren aurrean izango gara. Zazpi egunetan bost ikuskizun eskainiko dizkigu-eta aurtengo Antzerki Jardunaldietako egitarauak. Hasteko, **GAURKOA** benetan saio berezia izango da, musika, umorea eta magia batuko baitu Mago Valen bizkaitarrak eta Riki Lopez mallorkarrak eskainiko duten "La noche más feliz del mundo...". Kontuz "funtzio lotsagabea" ikusteko asmoa duzenok, ezohiko ordutegian hasiko baita, gaueko 22:30ean, eta iraupenak ere aurtengo edizio markak hautsiko baitu. Bi ordutako iraupena izango du Euskal Herrirako estreinaldia izango den funtzio "parranderoak".

BIHAR La Garnacha Teatro Errioxako konpainiaren "Los cuernos de Don Friolera" lana eskainiko dute, Valle-Inclánen lan entzutetsua eta, Juan Ortega jardunaldietako zuzendariaren esanetan, "bizitzan ikusi dudak antzerki-lanik onena". La Garnachak 1992an estreinatu zuen obrak 131 sari irabazi ditu urte guzti hauetan, euretako 28 estatu mailako lehiaketetan. Aipatutakoak bihurtzen du lan sarituena izatea Espainiako antzerki amateurraren barruan.

ETZI Hika Teatroaren "Txarriboda" izango da protagonista. Agurtzane Intxaurreak Miren Gojenolaren laguntzarekin zuzentzen duen euska-



Martxoaren 9an
 "Función Golfa: Magia"
 22:30ean Coliseoan

Martxoaren 10ean
 "Los cuernos de Don Friolera"
 20:30ean Coliseoan

Martxoaren 11n
 "Txarriboda"
 20:30ean Coliseoan

Martxoaren 13an
 "La zanja, encuentros entre Europa y América"
 20:30ean Coliseoan

Martxoaren 15ean
 "Electra"
 20:30ean Unibertsitateko Hezkuntza Esparruan



razko lanean umorea da ardatza eta ikusleek osatuko dute ezkontza berezi horretako gonbidatuen zerrenda. Eta gala esnemamitan antolatuko du Patxi Bilbao Iperrolaren jabeak: "Gaur mundu guztiak jan, edan eta dantzan egin dezala nahi dut. Txerriak bezala, lehertu arte!". **Aldameneko orrialdeko elkarriketan dituzue 80 minutuko iraupena duen lanaren nondik-norako gehiago.**

MARTITZENEAN Bartzelonako Titzina Teatrokoek tragikomedia eskainiko dute, "La zanja, encuentros entre Europa y América" Henrik Ibsenen testuarekin Pako Revueltas eta Angel Mirouk egindako bertsio askean. Lan guztia biren artean egingo dute, Diego Lorca eta Pako Merino dramagintzaz eta zuzendaritzaz arduratu baitira, antzezle bakarrak izateaz gain. Ordu eta erdiko umore eta emozioz betetako argumentu dinamikoaren aurrean gaude.

ETA EGUENEAN Chapitô portugaldarren "Electra" tragedia komikoak "sintesiaren artea, erritmo ezin hobez jantzia" eskainiko digu, oraingo honetan Coliseoa laga eta Hezkuntza Esparruan. Bakarrik hiru antzezle dira, baina -hori bai- ehundaka koilara behar dituzte eszenografia eta atrezzo ikusgarriak sortzeko. Ederra Chapitôren gonbidapena: klasikoei errespetua galtzera eta euren azken sormenarekin gozatzera Greziako mitologiaren ingurumenean.



JUAN SANCHEZ VALLEJO
(psikiatra)

- Minbizia izenak berak duen esanahia alde batera lagata, zertan da desberdina gaixotasun hori?

Zure bizitza arriskuan jartzen duenetik berezia da. Hitzari erakusten diogun beldurra, baina, gaur egun ez litzateke izan behar hainbesteko, askoren kasuan hitz hori estigmatizatuta dagoelako. Gizarteak jakin behar luke minbizien %55etik gora sendatzen dela gaur egun. Hori bai, guztiek ez diote gaixotasunari irabaziko eta ez dira ahaztu behar gaixolari ekarriko dizkion atzetikoak.

- Horregatik, behin gaixotasuna gaindituta, horrek pertsona hobea egiten zaitu? Besteekiko enpatikoagoa?

Horrela da, hori da gaitzaren kontrapuntua. Onartu behar dugu horrelako diagnostikoa jakinarazten dizutenean baikoitzak itzeleko zaplastada hartuko duela, bizitzako egunik gogorrenetakoa bihurtu daiteke... Baina minbizi mota asko sendatu egiten dira eta horrek emo-

“Minbizia gainditzen dutenek enpatikoago eta baikorrago heltzen diote bizitzari”

Juan Sanchez Vallejo sendagile psikiatra jubilatua “Vivir” liburu berria aurkeztu zuen aurreko astean. Publikazio horretan minbiziaren inguruan jarduten du egileak eta gaixotasun “berezi” horrek gaixoengan sortutako emozio eta existentzial edukiak aztertzen ditu, beti ere ikuspuntu baikor eta itxaropentsuari eutsiz. Minbiziari irabazi dioten testigantzak jasotzen ditu.

zioen aldaba-hots indartsua eskaini ahal dizu, energiaz beteko zaituena. Mundua ere positiboki hartu dezakezu. Gaztele-raz esaten den moduan, “novia/o de la muerte” izan zarenean, bestelako harrotasun batek laguntzen dizu. Horrek askoz ere solidarioagoa eta enpatikoagoa izateko indarrak ematen dizkizu.

- Komunikabideok egoki jokutzen dugu gaixotasunaren inguruko berriak kaleratzean?

Denetarik dago, berriari indarra non jartzen duzunaren arabera. Ez da gauza bera “oraindik %50 hiltzen da” esatea edo “zorionez %50k gainditzen du”. Baina, psikiatra moduan inoiz ulertuko ez dudan arren, oraindik gauza ezkorrek gehiago saltzen dute. Sentsazionalismoak eta tremendismoak badute indarra oraindik, baita jarraitzaileak ere.

- Gaixotasunari aurre egiteko kemena izateak, gaindituko dut pentsatzeak, zenbateko balioa du?

Eragina argia da eta edonolako adibiderik ez da falta, gainera. Zenbaterainokoa den eragin hori ez da kuantifikatu oraindik. Dena dela, EEBB-an orain dela 15-20 urte egindako ikerketa batek zioenez, baikorrek 10 urte gehiago hartzen dituzte. Ez dakit zer datu erabili zuten estudio hori egiteko. Baina nik ere ez dut zalantzarik egiten gaixoa zenbat eta indartsuago eta baikorrago gaitzari aurre egin horrek mesede besterik ez diola ekarriko. Energia baikorra denetarik da lagungarri.

- Gaixolari egia esan behar zaio beti? Edo gaixoaren arabera?

Gezurrik behintzat ez esan, bizirik irautea dago-eta jokoan. Gaixotasunak norantza joko duen ziur ez gaudenean ere, ez da komeni horrekin jokatzeko ibiltzea. Gaixoa kontuan hartu behar eta bere tolerantziaren arabera erantzun beharko genuke. Eta bere duintasuna errespetatu, erremediorik ez dagoenean ere.

Argazki erakusketak tabernetan

Eibarko Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldearen eskutik martxoan hiru erakusketa hauek egongo dira ikusgai beste horrenbeste tabernetan: Javier Ortiz Morenoren lanak Ambigú kafetegian, Pedro Arriolarenak Portalea jatetxean eta Ortzadar argazki taldeko kideenak Depor tabernan. Bestalde, Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldeko Jose Luis Irigoienek argazkiak Tolo-sako Illargi tabernan ikusteko moduan izango dira martxoan.



Sosolan ere euskera praktikatzeko

Aurreko zapatuan Sosola baserrira bisitan joan ziren Berbetan programetako partaideak. Eguraldia lagun, goizeko 10:30ean autobusa hartu eta bertara abiatu ziren. Ailegatu orduko, Enrike eta Aizpea prest zeuden atarian ongi etorria emateko. Enrikek, lehenik eta behin, Sosola baserriaren historia kontatu zien eta, ondoren, bi talde osatu zituzten: Aizpeak ogia nola egiten duen azaldu zuen, lehenengo pausotik hasi eta amaierara arte, hau da, dendetara ailegatzen den arte. Enrikek, berriz, gaztaren prozesua kontatu zien. Primeran ibili ziren, haur zein heldu, gazta eta ogia nola egiten diren ikasteaz gain, paraje ederraz gozatu eta mokadutxo bat jateko aukera ere izan zuten, Sosola baserriko gazta eta ogia!





Egitarau zabala antolatu du udal liburutegiak martxorako

Eibarko udal liburutegiak egitarau zabala antolatu du datozen asteetarako eta, gainera, bat egin du Emakumearen Egunaren inguruan antolatutako egitarauarekin. Martitzenean "Secuelas de nuestras guerras y derrotas: de la República a la modélica Democracia" liburua aukeztu zuen Josemaría del Palacio Alonso egileak, Asier Ezenarroren laguntzarekin. Eta egun berean "Jenisjoplin" liburuari buruz jardun zuen Uxue Alberdik, Idazlearekin Harixa Emoten irakurketa taldearen martxoko saioan.



Einer Rodriguezen Eibarko argazkiak Untzagako jubilatutako etxean

Atzo zabaldu zuten Einer Rodriguezen argazki erakusketa Untzagako jubilatutako etxean. Martxoaren 25era arte egongo da Eibarko toki ezberdinetan hartutako irudiek osatzen duten erakusketa ikustera joateko aukera, asteleheneetik barixakura 20:00etik 21:30era eta zapatu eta domeketan, berriz, 12:00etatik 14:00etara.


Kous-kousa prestatzen erakutsiko dute "Munduko sukaldaritzan"

Herrialde ezberdinetako sukaldaritzari eskainitako hirugarren saioa egingo da martxoaren 20an (martitzena) ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Oraingoan Marokoko janaria izango da ardatza eta parte hartze-
ra animatzen direnek kous-kousa prestatzen ikasiko dute. Portaleko sukaldean izango da tailerra, 18:00etan, eta izen-ematea gaur zabalduko dute (Berbetaneko partaideek lehentasuna izango dute, baina tokirik balego edozein herritarrek izango du izena emateko aukera), ongietorri@etakitto.eus helbidean edo 943200918 telefonoan.



Martin Zalakain Eibarren

Bilboko Arriaga antzokian estreinatutako "Martin Zalakain" dantza, antzerkia, musika, kantu eta literatura batzen dituen ikuskizuna Eibarren ikusi ahal izango da maiatzaren 19an. Juan Antonio



Urbeltzen koreografia, Ander Lipus-en taula zuzendaritza eta aktore lana, Harkaitz Canoren gidoia, eta Argia eta beste zenbait taldeekin batera Kezka dantza taldearen parte-hartzearekin, Pio Barojaren nobela dantzan jartzen du Martin Zalakain ikuskizunak. Coliseoan izango da, 19:00etan, eta sarreren salmenta astelehenean hasiko da, 17:30etik aurrera Kutxabank bidez eta Coliseo antzokiaren txarteldegian.



Udalekuak programarako izen-ematea

"Udalekuak" Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundien artean antolatutako programan aurretik izen-emateko epea martxoaren 14tik 26ra bitartean egon da zabalik. 7-13 urteko haurrentzat da eta parte-hartzaile bakoitzak bere lurralde historikoko foru aldundian eman behar du izena. Eskaintza osoa eta bestelako informazioa interneten, www.gipuzkoangazte.eus/udalekuak helbidean dago eskuragarri.



JAVIER GAZTELURRUTIA MAIZTEGI 3. URTEURRENA (2015-III-12)

Zu joan zara, baina zureganako gure maitasuna ez. Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun ilusioa eta bizipoza.
ETXEOEK





LOREA ARAKISTAIN

Gu gara

Gu gara 6 urteak bete orduko bere burua gutxieste duen neskatia.
Gu gara egindako lanagatik 7.489 euro gutxiago jasotzen duen behargina.
Gu gara hitz egiten dugunean entzuten ez gaituztenak, baina argazkietan zoragarri geratzen garenak.
Gu gara familia osatzeko ibilbide profesionalean etena egin duen profesionala.
Gu gara umeak zaintzeko baimena hartu duen ama.
Gu gara gurasoak zaintzeko lanaldia murriztu duen alaba.
Gu gara jubilatutakoan 6.300 euro gutxiago jasoko dituen pentsioduna.
Gu gara Cleopatra, Egiptoko inperioari zutik eutsi zion azken faraoia.
Gu gara Harriet Tubman, esklabutzatik ihes egin eta esklabuak askatzen lan egin zuen askatasunaren defendatzailea.
Gu gara Ada Lovelace, lehenengo programatzailea.
Gu gara Marie Curie, bi nobel sari jaso zituen lehen ikertzailea.
Gu gara Alfonsina Strada, mutil izena erabilia Giroa korritu zuen txirrindularia.
Gu gara Balkissa Chaibou, ikastea amets ezkontza behartuaren bezperan etxetik aldegin zuen aktibista.
Gu gara Ann Makosinski, gaur egun etorkizun oparoenetakoa espero zaion asmatzailea.
Izango gara.

“Itsaspeko bizitzak” areto literarioa zabaldute Portalean

Galtzagorri Haur eta Gazte Literatura Elkartek sortutako ‘Itsaspeko bihotzak’ areto literarioa jasoko du hilaren 15era arte Portaleko erakusketaretoak. Juan San Martin liburutegiak Berdintasun sailaren laguntzarekin antolatutako ekimena da eta bertan genero berdintasunaren gaia lantzen da, euskarazko haur literaturaren bitartez. Hezikidetza ardatz duen ibilbide artistiko-pedagogiko bat diseinatu du Galtzagorri elkarteak horretarako. Ibilbideak haur literatura bereziki, eta baita bestelako arte adierazpenak ere (ilustrazioa, jostintza, artisautea, ikus-entzunezkoak...), Barne hartzen ditu. Haur eta gazteentzat argitaraturikoen artean parametro pedagogiko hezikidetzailerak dituzten lanak hautatu dituzte saiorako. Liburu zehatz bat aitzakia izanik hezikidetzarekin lotura zuzena duen gai bat jorratuko dute umekin arte diziplina ezberdinak erabiliz aretoaren txoko bakoitzean. Erakusketa



batez ere L.H.-ko 4. mailako hurrek bisita gidatuak egin ditzaten pentsatuta dago. Beraz, ikastetxeekin lotutako bisitak burutuko dira bi aste horietan zehar. Oraingoan zazpi ikastetxeko hamar talde pasatuko dira erakusketa honetatik. Horrez gain, familientzako saioa martxoaren 12an izango da, 17:30etik 18:30era eta izen-ematea, Liburutegian egin daiteke. Dena dela, erakusketa nahi duten guztientzat zabalik egongo da erakusketa aretoaren ordutegian.

Martxorako jarduerak Arrate Kultur Elkarteak

Arrate Kultur Elkartek hainbat jarduera antolatu ditu martxorako. Hasteko, urteko batzar nagusia martxoaren 17an egingo dute, 19:00etan elkarteko lokaletan, eta bazkide guztiak daude deitua parte hartzera. Horrez gain, Eguen Zuri argazki lehiaketarako lanak aurkezteko epea eguazte-



nean amaituko dela gogorarazi nahi diote jendeari. Lehiaketarako lanak bulegoan edo tabernan entregatu behar dira. Eta ikastaro berria, “Dantza afrogaraiakidea” ematen hasiko dira. Klaseak hilean behin izango dira, zapatu batean, 10:30etik 13:00era (martxoak 24, apirilak 21, maiatzak 12 eta ekainak 9). Lehen saioa Arrate Kultur Elkarteak izango da eta beste beste hiru saioak, berriz, Portaleko dantza aretoan emango dituzte. Ikastaroa Arantza Iglesias koreografa, dantzari eta irakasleak emango du eta izena emateko arratekultu@gmail.com helbidera idatzi daiteke edo, bestela, 638 28 49 12 / 670 04 00 86 telefonoetara deitu. Saio solteak 25 euro (22 euro bazkideek) balio du eta lau saioak eginez gero, berriz, 90 euro (87 euro bazkideek) ordaindu behar dira.

Primeran ibili ziren henna tailerrea

Henna-tailerrea jardun zuten aurreko egunean Berbetan programetako hainbat parte-hartzailek, baita gustora jardun ere. Safia eibartar gaztea izan zuten irakasle. Lehenerik eta behin, hennaren jatorria eta bitxikeriak kontatu zizkien; ondoren, xiringak eta henna hartu eta paper batean frogak egin zituzten, eskua hartzeko, eta tailerra aurrera joan ahala ausartenean euren eskuetan egin zituzten henna-irudiak. Pozarren bueltatu ziren etxera, eurek marraztutako apaingarriak soinean.





Sagardo Eguna bihar **ERMUAN**


Bihar, zapatua, Ermuko Gazte Asanbladak antolatutako V. Sagardo Eguna ospatuko da Ermuan. Herriko hainbat ostalaritza establezimenduren laguntzarekin antolatu da, baita Ermuko okindegi eta harategiekin eta Euskadiko hainbat sagardotegiren babesarekin ere. 12:30ean hasiko dira sagardoak banatzen Orbe kardinalaren plazan 14:30ak arte, eta arratsaldean 19:30etik sagardoak amaitu arte. 13:30etik 14:30era, gainera, Mintzotz ekimena egingo da, hau da, euskara praktikatu ahal izateko mintzopoteoa. Arratsaldean, 19:30ean, trikopoteo alaiak herriko kaleak girotuko ditu, eta 22:00etatik aurrera dantza egiteko tarteak izango da Mugi Panderoa erromeria taldearekin. Pintxoak, basua era zapia 6 eurotan jarriko dute salgai.



Bertso-saioa gaur **MENDARON**

"Zerua motxailen aterpe" izenpean Mendaron ospatzen duten Motxaila Egunaren barruan, "Motxailak bertsotan" ekitaldia izango da gaur. San Agustin Kulturunean egingo den bertso-saioan. Amets eta Maddalen Arzallus anai-arrebekin batera, Andoni Egaña eta Jone Uriak hartuko dute parte Maialen Olazabal gai-jartzaile izango duen ekitaldian. Bertso-saio gaueko 22:00etan hasiko da.

eguraldia (EUSKALMET.NET)



hildakoak

- Iciar Garate Santa Ageda. 81 urte. 2018-II-27.
- Maria Andia Mauleon. 92 urte. 2018-III-1.
- Paulina Loiola Zabala. 90 urte. 2018-III-3.
- Dionisia San Martin Agirreazaldegi. 92 urte. 2018-III-4.
- Maritxu Arrizabalaga Arbulu. 98 urte. 2018-III-4.
- Jon Mirena Kortaberria Albizu. 86 urte. 2018-III-4.
- Soledad Jorge Ugalde. 86 urte. 2018-III-7.

jaiotakoak

- Anaya Ahmed. 2018-II-22.
- June Perez de Obanos Cañas. 2018-II-28.

farmaziak

- Barixakua 9**
EGUNEZ **Mandiola** (San Agustin, 3)
- Zapatua 10**
EGUNEZ **Castafio** (J. Etxebarria, 7)
- Domeka 11**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Astelehena 12**
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Martitzena 13**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Eguaztena 14**
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
- Eguena 15**
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Barixakua 16**
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)

GAUEZ BETI - 2018AN-
Lafuente (Sostoatarren, 10)

SUDOKUA

AURREKOAREN
 EMAITZA

4	5	6	3	1	8	7	2	9
8	7	3	2	4	9	6	5	1
2	1	9	6	7	5	8	3	4
5	9	4	7	8	2	1	6	3
3	2	7	1	5	6	9	4	8
6	8	1	4	9	3	5	7	2
1	4	5	8	3	7	2	9	6
7	3	2	9	6	1	4	8	5
9	6	8	5	2	4	3	1	7

	9	5			4			7
			2					3
1					5			
9				6			1	3
	7	4		1		6	2	
3	1			4				9
			4					1
	2				3			
8			9			7	4	

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- AI-Anon/Alateen.....650 26 59 63

Barixakua 9

MAHAI-INGURUA

18:30. "Emakumeen eskubideak lan merkatuan": Carmen Retenaga eta Ana Alberdi (Alfako langile ohiak), Itziar Badiola (Monroeko langile ohi), Raúl Arza (UGT) eta Loli García (CC.OO.). Antolatzaileak: Eibarko Sozialistak eta Egotik Ekora. Herriaren Etxean (Casa del Pueblo-n).

MIKROANTZERKIA

19:00. "Rapsodas S.A." (La Red Teatro). El Corte Inglesean (kafetegian, 5. pisuan).

ANTZERKI JARDUNALDIAK

22:30. "La noche más feliz del mundo..." (Mago Valen-Riki López). Coliseoan.

Zapatua 10

EIBAR-REAL MADRID

09:55. Magdeburgotik Nickchups eibarzale taldekoei ongi etorria.

10:00. Eskozia La Braven txosna zabaltzea. Herri-kirol desafioa, Bihurriren eskutik: 3 metroko perimetroko enborra bi eskurekin, 2'5 metroko perimetrokoa esku bakarrarekin eta 4 automobil aizkorarekin moztea, 100 minutuan. Untzagan. Jarraian Ipuruara joango dira, animatzera.

15:30. Bazkaria. Ipur sagardotegian.

ASTELENA HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30. 2-12 urte bitarteko umeentzat. 3 euro (doan EMGI-ko txartelarekin). Astelena frontoian.

TAILERRA

17:00. "Ze nolako biharra emakumeena!". Izen-ematea: 16:00etatik 16:30era. Armagintzaren Museoa.

TAILERRA

17:30. Musika tailerra (0-36 hilabeteko haurrentzat). Doan. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. Ume eta gurasoentzat jolasteko gunea (2-5 urtekoentzat). Ipurua kiroldegian.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. "Los cuernos de Don Friolera" (La Garnacha Teatro). Coliseoan.

Domeka 11

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. Ume eta gurasoentzat jolasteko gunea (2-5 urtekoentzat). Ipurua kiroldegian.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. "Txarriboda" (Hika Teatro). Coliseoan.

Martitzena 13

IKASTEN

10:00. "Familia berriak gizarte berri batean" hitzaldia, Iñigo Lamarka Ararteko ohiaren eskutik. Armeria Eskolan.



IKASTEN

16:00/19:00. Puntu-tailerra.
17:00/20:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

SARI-BANAKETA

19:00. "Martxoak 8 Eibarren" kartel lehiaketako irabazleari. Portalean.

HITZALDIA

19:00. "Emakumeen ekarpenak jasotzeko proiektuak: Wikiemakume @k eta gure genealogia feministak". Portalean.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. "La zanja. Encuentros entre Europa y América" (Titzina Teatro). Coliseoan.

Eguaztena 14

TERTULIA

17:00/19:30. "Descubre las herramientas para potenciar el poder personal", pastekin. Dinamizatzailea: Eskar Larrinaga. Pagatxa emakume taldeak antolatuta. Portalean.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

Eguena 15

IKASTEN

10:00. "Eraikinen inspektio teknikoa (EIT)" hitzaldia, Iñaki Lapeyra Lasa arkitekto teknikoaren eskutik. Armeria Eskolan.

KALEETAN KANTUZ

17:00. Dantza (beheko maila).

18:00. Dantza (maila altua).

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

MAHAI-INGURUA

18:00. "Let's women go!", emakumea eta ekintzailetasunaren inguruko: Susana Zaballa (Interalde Consultoriaren Bazkide Sortzailea eta Emakumeekin Elkartearen Presidentea), Patricia Rodríguez (SD Eibaren Zuzendari Nagusia), Patricia Arrizabalaga (Eibarko Udalaren Berdintasuneko Zinegotzia), Zaida Fernández (Eibarko Udalaren Berdintasuneko Teknikaria) eta Ibone Arreche (G.A.C. Arkitekturaren Bazkide Sortzailea). Moderatzailea: Lorea Arakistain ("Puntu Eus" fundazioaren komunikazio arduraduna). Amaieran, Miren Narbaizaren (MICE) musika. Ekingunek antolatuta. Eibar Coworking-en (Eibarko Txikito, 8).

HITZALDIA

19:00. "Askatasunerako bi gurpil", Itziar Alonso-Arbiolen eskutik. Armagintzaren Museoa.

URTEKO BATZARRA

19:00. ...eta kitto! Euskara Elkartearen Urteko Batzarra (2. deialdia 19:30ean). ...eta kitto!-n (Urkizu, 11 so-lairuaratean).

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. "Electra" (Châpito). Hezkuntza Esparruan.

Erakusketak

Martxoaren 15era arte:

- "ITSASPEKO BIHOTZAK", GENERO BERDINTASUNA ETA HEZKIDETZA LANTZEKO ERAKUSKETA. (Portalea)

Martxoaren 25era arte:

- EINER RODRIGUEZEN ARGAZKI ERAKUSKETA. (Untzagako Jubilatuta Etxea)

Martxoaren 13tik 28ra:

- "ARTESTURA FEMINISTAK" LEHIAKETARA AURKEZTUTAKO LANEN ERAKUSKETA IBILTARIA. (Portalea)
- "GAZA AMAL, GAZAKO ZERRENDAKO EMAKUME AUSARTEN ISTORIOTXOAK" ERAKUSKETA. (Portalea)

Martxoaren 31ra arte:

- JAVIER ORTIZ MORENOREN ARGAZKIAK. (El Ambigú)
- PEDRO ARRIOLAREN ARGAZKIAK. (Portalea jatetxea)
- ORTZADAR ARGAZKI TALDEKO KIDEEN ARGAZKIAK. (Deportaberna)
- JOSE LUIS IRIGOIENEN ARGAZKIAK. (Tolosako Illargi)

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, GARAZI Egurrola Mugerza, domekan 6 urte egingo dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MARKEL, atzo 5 urte bete zenduaz-eta! Musu haundi-haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, EIDER!! Oso ondo pasa zure egunian. Patxito pilla bat danon partez.



Zorionak, LUR, etzi 9 urte beteko dozuz-eta. Ondo pasa eguna, etxeko guztien partez.



Zorionak, MALEN, atzo 2 urte bete zenduazelako. Etxeko guzton partez.



Zorionak, ALAIN!, aurreko barixakuan 8 urte egin zenduaz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Ongi etorri, XABATI!, eta zorionak, ELIANA, aurreko barixakuan urtiak egin zenduaz-eta. Etxeko guztion partetik.



Zorionak, ENEKO eta MARTXEL, astelehenian urtiak bete zenduezen-eta. Patxo erraldoi bat Amañako lagunen partez!

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

10ean: 19,45, 22:30

11n: 20:00

12an: 20:30 (2 aretoa)

"Errementari"

Zuzendaria: Paul Urkijo

(2 ARETOAN)

10ean: 17:00, 19,45, 22:30

11n: 20:00

12an: 20:30 (Antzokia)

"La forma del agua"

Zuzendaria: Guillermo del Toro

(1 ARETOAN)

12an: 20:30

"Handia"

Zuzendaria: Jon Garaño

(ANTZOKIAN)

10ean: 17:00 (2 aretoa)

11n: 17:00

"Gatos. Un viaje de vuelta..."

Zuzendaria: Kuniyiko Yuyama



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK** honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai Elgetan. 3 logela, sukaldelagela, 2 komun, despentsa, ganbara eta terraza. Teilatua, fatxada eta leiho berriak. Kalefakzioa. Tel. 695-743398.
- Baseria salgai Mutrikun, terrenoarekin. Tel. 676-420846.
- Babes Ofizialeko pisua salgai Barakaldo kalean. 3 logela, 2 komun, garajea eta trasteroarekin. Jantzita. Bizitzera sarzteko moduan. Tel. 600-752732.

1.2. Errentan

- Pisua, edo logela, hartuko nuke alokairuan. Tel. 612-299869.
- Bikoteak pisua hartuko luke alokairuan. Tel. 605-363870.
- Amañan estudioa edo logela (sukaldea erabiltzeko eskubidearekin) hartuko nuke alokairuan. Tel. 674-277661. Cristina.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruan. Tel. 674-930223.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Lokala alokagai Amañan, T. Anitua 10ean. Gazteentzako aproposa. Tel. 696-996175.
- Lokala alokagai Ubitxan. 70 m² eta 150 m². Bulego, biltegi edo tailer txikiarentzat aproposa. Kalerako irteera zuzenarekin. Tel. 617-688311.
- Garajea alokagai Legarre-Abontzan. Tel. 617-688311.
- 33 m²ko lokala alokagai. Guztiz jantzita. 460 euro, negoziagarriak. Urtebeterako gutxienez (hiru hilabete doan). Tel. 688-678934.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 675-965130.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 605-598999.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldetan nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 664-357381.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 612-264014.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 663-470706.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 612-482203.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-835745.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko etxean zein ospitalean. Ordu-tegi malgua. Tel. 632-949742.
- Neska eskaintzen da 09:00etatik 16:00etara nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Erizain tituluduna eta autoarekin. Tel. 664-111715.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia luzea. Tel. 643-467326.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (formazioarekin) eta sozietateak garbitzeko. Tel. 671-989434.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko, jatorduak prestatzeko eta gela-zerbitzari lanetarako. Tel. 640-696214.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-988471.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta tabernetan jarduteko. Tel. 633-101852.
- Mutilla eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta animaliak ateratzeko. Esperientzia. Tel. 642-827097.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 633-401678.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 667-060292.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 602-389301.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Baita asteburuetan ere. Tel. 652-668877.
- Mutilla eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta baserrian lan egiteko. Esperientzia. Tel. 603-406827.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-297089.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 626-407923.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-506763.
- Mutilla eskaintzen da etxeak edo pisuak konpontzeko edo margotzeko. Tel. 678-112785.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 678-112785.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Erreferentziak. Tel. 600-840833.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gaez ere. Esperientzia. Tel. 628-529252.
- Neska eskaintzen da arratsalde nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 638-338816.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta baserrian jarduteko. Tel. 674-579736.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-316890.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-406177.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 688-818176.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 655-677035.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko Mendaroko ospitalean. Tel. 654-940720.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-127874.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 603-660175.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 603-687362.
- Gizona eskaintzen da igeltsero eta pintore lanetarako. Tel. 642-650816.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-549177.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita gaez ere. Tel. 642-650900.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-251395.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 600-099460.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 675-807600.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxea garbitzeko. Tel. 602-856031.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-345286.
- Emakumea eskaintzen da etxeetan lan egiteko. Interna. Tel. 688-865466.
- Emakumea eskaintzen da goizez nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Baita asteburuetan ere. Tel. 654-590098.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-473324.

4.2. Langile bila

- Gizona behar da asteburuetan eta jai-egunetan alzheimerria duen nagusia zaintzeko. Tel. 633-364377. Laura.
- Kamarera/o behar da taberna baterako. Esperientziarekin. Tel. 620-246953.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- DBH eta Batxilergo klase partikularrik ematen dira. Talde txikiak. Goiz eta arratsalde. Tel. 685-739709.
- Ingeleseko klase partikularrik ematen dira, eskola errefortzu moduan edo azterketa ofizialen prestakuntzararako. Banaka edo talde murriztuak. Tel. 660-433571.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- 0'90eko sukaldela salgai, gas-bonbonak eramatekoarekin. Baita 0'90eko ohe artikulatua ere. Berriak. Tel. 617-688311.
- Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. Tel. 688-624326.
- Fondue salgai sukaldatzeko. Erabili gabe. 30 euro. Tel. 943-120030.
- Zukugailua salgai. Philips "Quick Cleau". Berria. 40 euro. Tel. 943-120030.

6.2. Eman

- Txakurkumeak oparitzen ditut, ezin ditudalako zaindu. Hiru hilabeteoak. Tel. 722-222338.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Aurreko barixakuan Pupu panpina aurkitu nuen San Andres eliza inguruetik. Tel. 605-759774.

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eu

Hyundai SUV Gama. Zuk aukeratutakoa.



TUCSON 17.900€tik aurrera

SANTA FE 26.715€tik aurrera

KONA 13.990€tik aurrera

Dagoeneko zure mugak gainditu, handia den zerbaitekin bat egin eta intentsitatez bizi zaitezke. Eta, horrez gain, zelan egin nahi duzun aukeratu dezakezu Hyundairen SUV Gamak eskaintzen dizkizun aukeren artean. Puntakoena aukeratzekotan, KONA Berrira aukeratu duzu. Estiloak, konektibitateak eta abangoardiako diseinuak inspiratuko zaitue edonora joanda ere. TUCSON Hyundairekin jokabide, diseinu eta prestazioen artean konbinaketa biribila erakusten duen modeloaren arrakastarekin gozatuko duzu. Eta, azkenik, handiena, SANTA FE Hyundai: sofistikazioa, espazioa eta luxua azken detaileraino. **Zuk aukeratutakoa da.**

OARSO CAR
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO
[WWW.OARSO-CAR.COM](http://www.oarsocar.com)

ELGOIBAR
OIARTZUN
Lintzirin Poligonoa, 1
943 49 48 30

Olaso Polig., 17
BEASAIN
Errepide Nazionala, 1
943 80 40 54

943 74 14 80
IRUN
Juan Thalamos, 43
943 63 97 69



TUCSON Hyundai Gama: CO₂ emisioak (gr/km): 119-175. Kontsumo mistoa (l/100km): 4,6 - 7,5. SANTA FE Hyundai Gama: CO₂ emisioak (gr/km): 149-174. Kontsumo mistoa (l/100km): 5,7 - 6,6. KONA Hyundai Gama: CO₂ emisioak (gr/km): 117-153. Kontsumo mistoa (l/100km): 5,2 - 6,7.

PSP gomendagarria Penintsulan eta Balearren TUCSON 1.6 GDI 96,4 kW/131CV 4x2 BLUE2 ESSENCE (17.900€), SANTA FE 2.0 CRDI 150 CV (110,4kW) 4x2 ESSENCE 7 jarleku (26.715€) eta KONA 1.0 TGD 120CV (88,3kW) 4x2 ESSENCE (13.990€) autontzat. BEZ, garraioa, matriculazio-zerge, sustapeneko deskontua, partikularrentzat, Banco Cetelem S.A.U.-ren bitartez, 13.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin TUCSON-en kasuan, 16.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin SANTA FE-ren kasuan, eta 12.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin KONA-ren kasuan. Finantziazioa finantza-erakundeak aztertu eta onartu beharko du. Eskaintza 2018/06/30era arte da baliozkoa. Ikusten diren modeloak: TUCSON Style, SANTA FE Style eta KONA Style. Mantentimendua ibilgailuaren finantziazioari lotua. * Hyundai Motor España S.L.U.-k bere bezeroei eskaintzen dien km mugarik gabeko 5 urteko berme komertziala Hyundai-ren sare ofizialak salduko dituzten Hyundai ibilgailuei soilik aplikatuko zaie, zerbitzu-pasaportearien baldintzen arabera. Kontsultatu itazu eskaintza, mantentimendu eta bermearen baldintzak Hyundai kontzesionarioen sarean edo www.hyundai.es web-orrian.



Isasi 36, EIBAR · 943 203 244
www.armeriaeskola.eus

**animatu eta
informa
zaitez!**



**NAZIOARTEKOTZA
AUKERAK**
Europa/Mundurako
bekak
Zikloak ingelesez

**METODOLOGIA
BERRITZAILEAK**
Erronketan oinarritutako
talde lana



**ESPE
ZIALI
ZAZIOAK**

ELEKTRONIKA

METROLOGIA

DUALA
Ikasketak
eta lana
ustartuz



**LAN
POLTSA**
Langile
teknikoan
beharra

**GOI
MAILAKO
ZIKLOAK**

automatizazioa
robotika
ARI

telekomunikazioa
informatika
STI

elektronika
MET

mekatronika
MTI

diseinu
mekanikoa
DFM

produkzioa fabrikazio
mekanikoan
PPFM

**ERDI
MAILAKO
ZIKLOAK**

elektrizitatea
IEA

mekanika
MEC

**GERTUKO
HARREMANA
eta ORIENTAZIO
PROFESIONALA**

**LAN AUKERA
ZABALA**
Enpresa
harreman estua



Esku onetan egotearen ziurtasuna.

20.000tik gora paziente pozik.
Etorri eta egin irribarre berriz ere.



20 urte baino gehiago zurekin.



Profesional talde handi bat zure
irribarre zaintzen.



Zure irribarre onena geure
laborategian diseinatzen dugu.



Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19 - bajo 20600 eibar
www.bistaeder.es